

Angel Erro

«Euskara armairu handi eta eroso da niretzat»



- **Emakumea Eliza Katolikoan** Jesusek defendatutakoa hierarkiak baztertu du
- **Gerrako Haurrak** Izaskun Arandia, *Agur esatea* dokumentalaren gidoilariari elkarrizketa
- **Elekatu-elikatu** Kulturak hileroko hitzordua du Baionan
- **Iratxe Lopez de Aberasturi** «Udalbiltzaren udal izaera aprobe txatu behar dugu herritarrengandik gertuago egoteko»

EUSKARA IKASI XXI. MENDEAN JARDUNALDIAK



NIK DI-DA BATEAN IKASI NUEN, BADAKIZU NOLA?

Otsailak 6. 20:00. Hizkuntza Eskolako areto nagusia, Iruñea.

IKASLEAREN AHOTSA

Otsailak 8. 18:00. Euskal Erakustokia, Baiona.

NOLA IKASI?

Otsailak 14. 19:00. Bibat museoa, Gasteiz.

EUSKARA NON IKASI?

Otsailak 15. 12:00. Euskaltzaindiaren egoitza, Bilbo.

AEKREN II. DIDAKTIKA TOPAKETAK

Otsailak 16. 9:30. San Telmo museoa, Donostia.

Informazio gehiago: www.korrika.org

æk

Garena ikasteko
para entendernos
pour se comprendre



18.korrika

KULTURALA



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko otsailaren 10a, 2.356. zenbakia

ASTEKO GAIA

EMAKUMEA ELIZA KATOLIKOAN Komunitate txikietan dute esperantza. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 4

PERTSONAIA

ANGEL ERRO: «Umorea, gatza bezala, kontserbagarri ona da». REYES ILINTXETA / 9

GAIK

ESKOLA ETA ETXEA Nola indartu seme-alaben ikasketa prozesua. ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA / 14

IRITZIAREN LEIHOA

EUOPAR BATASUNA OBRETAN ASIER BLAS MENDOZA / 18

ETA, ERAKUNDE ZIBILA BIHURTU PATXI ZABALETA / 19

DÉJÀ VU KARLOS GORRINDO ETXEANDIA / 20

CAN: ERREGIMENAREN ZUTABEA NOIZ ERORIKO

IVÁN GIMÉNEZ / 21

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 17

TXANDAN (H)egia. IXIAR ROZAS / 20

BERTSO BERRIAK Viva Chavez carajo! JOAKIN ARREGI "TXE" / 21

ZIRTAK Liburu askeak. IRATXE ESNAOLA / 22

ERDIKO KAIERA

IZASKUN ARANDIA: «Azken unean guraso ugari ez zen gauza izan seme-alabak *Habana* barkuan sartzeko».

MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 23

ELEKATU-ELIKATU Euskaraz eta edukiz jantzi nahi dute

Baiona. GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 26

LITERATURA XABIER ETXANIZ ERLE / 28

MUSIKA OLATZ KORTA / 29

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 30

ALEA Ez da kasualitatea. ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA / 31

OSASUNA JABIER AGIRRE / 32

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 33

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 34

TERMOMETROA

IRATXE LOPEZ DE ABERASTURI: «Herri honi benetako argazkia egingo dio Udalbiltzak». URKO APAOLAZA AVILA / 35

ANGEL CALVO, FILIPINETAN APAIZ: «Herritarrek bizimodu duina izan arte, ez dago bakerik». A. BELAUNTZARAN / 38

HIZKUNTZA GUTXIAGOTUAK Kolonbiako enberak euren hizkuntza idazten hasi dira. AMAIA UGALDE BEGOÑA / 40

EKONOMIAREN TALAIAN JUAN MARI ARREGI / 43

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 43

NET HURBIL Estatu Batuak zenbat eta ahulago, inperialistago. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 44

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 46

ASTEKO GAIA

EMAKUMEA ELIZA KATOLIKOAN

Komunitate txikietan dute esperantza

Emakume kristauengana jo dugu, Eliza Katolikoaren barruan lanean ari direnengana. Emakumea bigarren mailakotzat duen erakundean nola sentitzen diren galdetu diegu eta zer egin dezaketen egoera diskriminatzailea gainditzeko. Segituan bereizketa egin dute: batetik, Elizaren hierarkiaren diskurtsoa, eta bestetik, komunitatearena.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |



DANI BLANCO

HILARI PAGAZAURTUNDUAK 18 urte zituen moja sartu zenean, karmeldar Vedruna da. Munduan zehar ibili da urte luzez, eta 1990az geroztik Donostiako Larratxo auzoan bizi da. 68 urte ditu eta Caritasen Donostian atzeritarren arretarako duen egoitzan boluntario lanean aurkitu dugu. “Emakume feminista naiz. 20 urte nituenetik arduratu izan nau emakumearen gaiak. Orduan jada, emakumearen rola aldatu egin behar zuela uste nuen, gizartean eta Elizan. Peaje askoko autopista zen. Orain ere peajeak ordaindu behar ditu emakumeak; gutxiago, Mendebaldean bederen”. Dena dela, uste du gaur egun ere borroka bera duela emakumeak.

Hilari Pagazaurtunduarekin eta Itziar Egigurenekin hitz egin dugu. Elizak emakumearenganako duen diskurtsoaz galdetuta biek egin dute bereizketa: gauza bat da Elizaren hierarkiak dioena eta beste bat parrokiak, komunitate txikiak eta Eliza. Ez dute uste, inondik ere, emakumearen rola berdinean interpretatzen eta gauzatzen dutenik bata eta besteak. Itziar Egiguren (1966, Aizarna, Zestoa) 16 urterekin hasi zen organoa jotzen etxeko belaunaldi maskulinoak etenda. Katekista izan da eta gaur egun oinarriko kristau elkarten espiritualtasunetik hurbil sentitzen da. Ez dago ados Elizaren hierarkiak daraman bidearekin: “Jesusen hitza ahaztu, edo hobeto esan, desbideratu du. Jesusen ez zuen desberdintasunik egin emakumeen eta gizonen artean, areago, Jesusen emakumeak ulertu eta askatu egin zituen. Eliza honek diskriminatu egiten du emakumea. Nik esan ohi dut, behin atzera egiten hasita, pena dela Elizak Jesusen garairaino ez egitea atzera”. Pagazaurtunduak ildo horri segi dio: “Hierarkiarekin ez naiz identifikatzen, aita santuarekin ere ez, aurrekoaren

“Jesusen emakumeak ulertu eta askatu egin zituen. Eliza honek diskriminatu egiten du emakumea. Nik esan ohi dut, behin atzera egiten hasita, pena dela Elizak Jesusen garairaino ez egitea atzera”

**Itziar Egiguren,
kristau katolikoa**

ideologoa da. Gizon oso tradizionalak dira, egiturari itsatsiak. Horrek ez du esan nahi ni ez naizenik Eliza, kristau komunitateko kidea naiz, beraz Eliza naiz”.

Hierarkiaren eta oinarriko komunitatearen arteko bereizketa ez dute buruan soilik, egunerokoan horrela bizi dute Egigurenek eta Pagazaurtunduak. Lehenengoak Aizarnako (Zestoa) elizan organoa jotzeaz eta Zumaian hainbat urtez katekesia emateaz gain, bestelako guneetan hartu du parte. Besteak beste, otoitz taldeetan aritu da eta hainbat erlijio-tako sinestunak elkartu dituen bilkuretan hartu

du parte. Espiritualtasunean aurkitu du erantzuna eta liberazioa. Larratxoko karmeldarra ere antzeko bideak jorratzen ari da; otoitz taldeak, ebanjelioa irakurtzeko taldeak. Komunitate txikiak biltzen dira etxeren batean, edo parrokiatan bertan ere bai. “Parrokiak, orain diren moduan bukatu egingo dira –dio Pagazaurtunduak–. Elizak hustutzen ari dira, emakumeak orain alde egiten hasi dira. Leherketa baino inplosioa gertatuko da, barrura puskatuko

da. Kristau komunitate txikietan sinesten dut. Gune horietan hausnartuko dugu emakume eta gizonok, otoitz egingo dugu eta ebanjelioa izango da gure abiapuntua”. Komunitate txiki horietako batzuk parrokiatik bereiz dabilta, kideetako batzuek bietan egiten dute kristau bizitza, komunitatean eta parrokiatan, beste batzuk berriz ez doaz elizara. Badira apaizak, komunitateetan parte hartzen dutenak. Bi solaskideak etorkizuneko Eliza ari zaizkigu irudikatzen.

Ebanjelioa irakurtzeko kendu betaurreko matxistak

Teologo emakume gehiago aldarrikatzen ditu Egigurenek, haiengandik aire freskoa



CuadraBus

www.cuadribus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxe: 945 892 215
info@cuadribus.com



Kelan, S.L.

- Suteen aurkako babesa
- Uren horniketa eta trataera
- Instalazio elektromekanikoak

Ibarra, 10 · 7. Pab · 48300 Gernika · Bizkaia
☎ 94 625 54 50 · Fax 94 625 54 00

EMAKUMEA ELIZA KATOLIKOAN

ITZIAR EGIGURENEK UTZIA



Itziar Egiguren indarkeria matxistaz: “Eliza hierarkikoak nola emango dio ahotsa gizartean emakumeari, etxean ez dio ematen eta? Emakumeen kontrako indarkeria oso epel salatzen duela iruditzen zait. Emakumearen menpekotasuna dago indarkeria horren azpian, eta menpekotasun hori desegin beharko luke Elizak, Jesusek desegin zuen bezala”.

eta esperantza ailegatuko direlakoan. Jesusen garaiko kristau komunitateen bizimodu eta eredu, eta II. mendetik aurrera gertatutakoa bereizten dituzte Egigurenek eta Pagazaurtunduak; Jesusen mugimenduak genero berdintasuna aldarrikatzen zuen, baina II. mendean geroztik Elizak eredu greziarrari lehenengo, eta latindarrari gero, segi dio. Horregatik ditu beharrezkotzat Egigurenek teologo emakumeak, haiek ikasten dutelako erlijioa, haiek gaitasuna dutelako biblia, ebanjelioak, beste begi batzuek irakurtzeko. Teologo horien lana izango da sinestunei jakintza transmititzea. Hainbat gizonezko ere, gogor ari dira ebanjelioen berrirakurketa ez-matxista jorratzen. Berrinterpretaziorako gaitasunaz ari garela katekista emakumeek –gizonak urri dira– izan dezaketean eragiteko botereaz galdetu diogu: “Borondate handiz egiten dute lan, zoragarri, baina katekesi liburuak oso txintxo eta leial jarraitza behartu nahi dituzte, eta liburu horiek katekesia aspaldiko garaian bezalaxe ematen erakusten dute. Amabirjinaren kontzepzio zaharkituarekin segitzen dugu, adibidez”.

Jesusen ametsari beldurra

Dolores Aleixandre, teologoa

“Gotzain-batzarra beldur da, uste du bere eskubideak defendatzen dituen emakume orok ordenazioa nahi duela. Kontua ez da hori. Ebanjelioak behetik gora bultzatzen du, norbait buru duen komunitate zirkularraz ari baita, eta denak anai-arrebak gara. Nire galdera da zergatik diogun hainbesteko beldurra Jesusen amets horri. Eta uste dut autoritatea eta boterea nahasten ditugula”.

Emakumea diskriminatuta eta elizak emakumez beteta

Bazterrean du Elizak emakumea, ahotsik eta bozkarik gabe, ardura karguetatik urrun. Eliza Katolikoko erlijiosoen %61 emakumeek osatzen dute, eta %39 gizonak, alegia, apaizek, apezpikuek, erlijiosoen eta diakonoez. Zerbitzatzen ari dira emakumeak: katekista lanean, elizak garbitzen eta apaintzen, misio taldeetan. Zergatik jarraitzen dute Elizan? Eta Egigurenen erantzuna: “Horrela hezi dituztelako, horretarako, eta beren buruari ez diote galdetu ere egiten. Hori alde batetik, baina noski, Elizan daude sinesten dutelako. Ni ere Elizan nago, Eliza atzerakoi honetan, eta maite dut. Horregatik min egiten dit. Baina ez du merezi etengabe amorrut bizitzea. Ahal dena egiten segi behar duzu”.

Hilari Pagazaurtunduak bizitza osoa darama moja. Nola eraman dezake hainbeste urtez halako zama? “Galdera hau egiten didazuenean zeuentzako daukat galdera: ‘Zu ez al zaude alderdi politikoren batean edo bestelako talderen batean sartuta? Zuk ez al daukazu borrokan egin beharrik?’. Egipton Anaia Musulmanek irudi moduan

Matxinada

Xabier Pikaza, teologoa

“Agian matxinada handia ari da gertatzen eta ez gara konturatu. Mota bateko Eliza hutsa gera daiteke, eta bitartean, ebanjelioari hobeto erantzuten dioten bizimoldeak ari dira sortzen. Bide horretan Amerikako Estatu Batuetako emakume erlijiosoen mugimendua garrantzitsua da”.

EMAKUMEA ELIZA KATOLIKOAN

Hilari Pagazaurtundua hierarkiaren eta herriaren arteko diferentziaz: "Hierarkiak ez du aurrera egin, baina herriak bai. Adibidez, hierarkiak esango dizu bananduak, beste batekin badabil, ezin duela jauna hartu, baina apaiz batzuek ez dute betetzen. Hierarkiak antisorgailuen eta homosexualen kontra hitz egiten du, baina emakume kristau katolikoak antisorgailuak erabiltzen ari dira; lesbianak ere badira Elizan, eta taldeak antolatuta dituzte gainera. Ez begiratu hierarkiari, begiratu herritarrari, nahiz eta bigarren hori ez den hedabideetan azalduko. Prentsarentzat ikusgarriagoa da [José Ignacio] Munillak eta Rouco Varelak esandakoa, Elizako emakumeen aldeko mugimendua baino".



DANI BLANCO

erabili zuten emakumea eta orain desagerrarazi egin dute, iraultza sandinistak gauza bera egin du, eta eskuinak, zer esango dizut bada. Ni ez noa ez eskuinarekin ez ezkerrekin. Esan nahi dudana da beti borrokatu behar duzula emakume gisa. Fededuna naiz, ebanjelioan sinesten dut eta zoriontsu naiz aukeratu dudana bidean. Borroka asko egin behar izan dut eremuak irekitzeko eta beti

errespetatu naute. Nire adineko emakumeek, ezkon bizitzan, askoz borroka gehiago egin behar izan dute nik lortu dudana lortzeko". Dena dela, aitortu digu gizarteak parekidetasunean aurrera gehiago egin duela Elizak baino.

Hari horri tiraka, Egigurenek ere emakumeak gizartearen bizi dituen bestelako zapalaketak gogorarazi ditu: eder egon behar diren

Kalean da otsaileko



aizu!

- Trapagaranen, antzinako inauteria bizirik
- Bardeetako habia fosila
- Etxetik bota nahi dituzte
- Euskara ikasteko ahaleginari txalo
- Xalbadorren arrastoaren atzetik

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) 29 €

aizunet.org

Mari Karmen Etxeberria, katekista eta misio taldeko kidea “Astebeteko greba egingo bagenu emakumeok Elizan?”

58 URTE ditu Zumarragakoak (Gipuzkoa), 28 urte daramatza katekesia ematen. Elizan emakumeak gero eta beharrezkoagoak direla uste du, apaizak gero eta gutxiago direlako, “lekutxo bat uzten digute, beharra dutelako”.

Zu nola sentitzen zara emakume gisa?

Nik ez dut arazorik izan apaizekin, ondo sentitu naiz, erabakiak hartu ditut baimena eskatu gabe, nire iritzia eman dut. Batzuek aitortu didate emakumeak Elizan diskriminatuak garela.

Zu ez zara diskriminatu sentitu.

Ni ez, eta lanean aritzen garen emakume talde osoaren izenean ausartzen naiz hori esatera. Orokorrean ordea, Eliza ez da horrelakoa. Oso atzeratuta dago, oso itxita. Armiarma-sareak garbitzeko dauzka.

Non ikusten duzu diskriminazioa?

Vatikanoko II. kontzilioak aurrera egingo zuela uste nuen, baina freno jarri diote. Unitate pastoraletan, bailarako zenbait bileratan, deseroso sentitu naiz. Horietan entzun eta ikusi dut asko dagoela egiteko. Gure artean esan izan dugu: “Astebeteko greba egingo gabenu emakumeok?”. Liturgian, katekesian, sendotzan, elizak garbitzen... gehienak emakumeak gara. Elizak dar-dar egingo luke.

Uste duzu emakumeek apaiz izateko eskubidea izan beharko luketela?

Ez nau asko kezkatzen gai horrek. Agian, apaizek ezkondu egin beharko lukete eta eguneroko bizitza ezagutuko lukete, zeren orain beste mundu batean bizi dira. Jesus zen emakumearen defendatzailea. Orain zertan ari dira?

zama da bat, diruarekiko menpekotasuna bestea. Gizonaren pare egoteko izugarritzko harria gainean hartu dugula dio: lan merkatuan sartu bai, baina gainerako eremuetan aurrerapauso handirik eman gabe, alegia, etxean, haurren zaintzan eta abar. “Batuetan gizartean ditugun diferentziak ez ditugu sentitzen eta Elizagatik diogu ‘zein zaharkituak dauden, nola dagoen emakumea!’”.

Apaizak emakume izatea ez da kezka nagusia

Duela gutxi Ingalaterrako Eliza Anglikanoak bozketa egin zuen emakumeak gotzain izan daitezkeen ala ez erabakitzeko. Ezezkoa atera zen. Dena dela, Ingalaterran emakumeak apaiz badira eta beste herrialde batuetan gotzain ere bai. Eliza Katolikoan apaiz izateko aukerarik ez dute, eta hierarkiak emakumearekiko duen diskurtsoa kontuan izanda, apaiz izango diren eguna utopia baino ez da. Itziar Egigurenek eta Hilari Pagazaurtunduak Eliza nola bizi duten jabetuta, usaindu dugu ez dela preseski apaizen ordenazioa haien ardura nagusia. Egigurenek argi dauka: “Niretzat ez da eztabaida interesantea. Ez dut emakumea gizonaren pare nahi, esan nahi dut ez ditudala botere egituran ikusi nahi, klerikalismoan. Ideala litzateke klerikalismoarekin bukatzea. Ema-

kumeok hitza eta eskumen betea behar ditugu, baina ez apaizen eredu klerikalari eusteko”. Pagazaurtunduak ildo berari jarraitu dio: “Ez diot ezetzirik, bide hori ireki nahi dutenen alde egingo dut, baina Elizak halako erresistentzia erakutsi duenez emakumearenganako, beste eremu batzuk bilatu behar ditugu. Bestalde, gaur egungo apaizgoarekin ez nago ados, etorkizunean apaiza izatea beste zerbait izango da, ez ditu zertan orain dituen ezaugarriak eduki”.

Bitxia da, emakumea isilarazten duen erakundean bi solaskide hauek ez dira baztertuak eta diskriminatuak sentitu eguneroko kristau bizitzan. Izango du zerikusirik isilik egoteko batere intentziorik ez izateak, haien izaera sendoak, baita genero berdintasunean sinesten duten fededun gizonak bidean aurkitu izanak (tardean apaizak). Tinko kritikatzan dute zapalketa, mindu eta haserretu egiten dira hainbat egoera ikusita, baina ez daukate borroka amorrutik beteta egiteko asmorik. Biei baikortasuna darie, “fruitua emango du emakumeen eta gizonen lanak”, dio Egigurenek, eta Pagazaurtunduak gaineratu: “Historia astindu behar dugu, eremua ireki eta atzerapausorik ez eman”. ■

Erakunde baztertzailea

Dones en l'Esglesia (duela 20 urte sortu zen talde hau Katalunian. 500 emakume biltzen ditu): “Pena ematen digu, zeren gure eliza lotsagarri ari da geratzen. Emakumea baztertzen segitzen duen munduko (Mendebaldean behintzat) erakunde bakarra izango da”. (...) Erlijioso gehienak emakumeak dira, parrokiako zereginetan ari direnak ere bai, baita ospakizunetan parte hartzen dutenak ere. Aita santua, kardinalak, gotzainak, presbiteroak eta zuzendaritza karguak dituzten guztiak gizonak dira. Elizak besteentzat aldarrikatzen dituen giza eskubideak ez ditu errespetatzen etxe barruan”.



PERTSONAIA

ANGEL ERRO

«Umorea, gatza bezala, kontserbagarri ona da»

Angel Erro: poeta zonbi eta Volgako batelaria.

| REYES ILINTXETA |
Argazkiak: Dani Blanco



34 urte, 35 maiatzean.

Eta oraindik ez daukat e-book-ik. Esaten dut badaezpada ere norbait ari bada pentsatzen zer oparitu nire urtebetetzerako... Nik uste dut inork ez didala oparitzen mundu guztiak pentsatzen duelako aspaldidanik badudala. Horregatik aprobeztatzen dut elkarrizketetan eta toki publiko guztietan eskatzeko.

Horietako bat nahi zenuke?

Bai. Bestalde, oraindik inguruan dauzkadan paperezko liburu guztiak irakurtzeko bi

bizialdi beharko nituzke. Ez litzaidake inportako, hala ere, bizitza gehiago eskatu behar izatea horretarako.

Es zaizu arraro edo deseroso egiten euskarri elektronikoa horretan irakurtzea?

Paperezko liburuek badute guk ezagutzen dugun geografia bat eta, alde horretatik, eroso ibil gaitzke. Bide ezaguna da eta aurrera eta atzera egin dezakegu ohituta gaudelako. Dena den, espazio berrien beldur ez da izan behar. Duela gutxi Umberto Ecori horretaz



galdetu zioten, aurreko elkarrizketa batean esana zuelako Internetek eta liburu elektronikoek kulturaren gainbehera ekarriko zutela. (Gauza berari buruz galdetu zioten, normalean elkarrizketatzaileek nahi izaten baitute aurreko elkarrizketetan esandakoak errepika ditzala elkarrizketatuak) Eta orduan Umberto Eco deklazio hura zuzendu behar izan zuen esanez egiatan ez dela hainbesteko, eta abar. Norbaitek, akaso, oparitu zion e-book bat, ez niri bezala. Kontuz ibili behar dugu kulturaren gainbeheraz hitz egiten dugunean.

Eta idatzi? Ordenagailuan ala eskuz?

Normalean ordenagailuz, oso eroso delako zuzenketak egiteko eta abar. Dena den, eskolan tabletarik eta arbel elektronikorik ez genuenok ohitura dugu eskuz idazteko. Gainera adinean gora noalako edo, ideiak momentuan ez apuntatzera ahaztu egiten zaizkit, nahiz eta gero idatzitakoa ikusi eta egiaztatu ehuneko handi batean hobe burutazio horiek ahaztu izan banitu. Darwinismo poetikoa izan daiteke hori.

Zuzenbidea ikasi, baina bokazio handirik gabe. Zergatik?

Kontu praktikoengatik. Erosotasunagatik gehienbat, eta hori normalean aukerarik txarra izaten da. Baina baita aukeratuena ere. Iruñean ikas zitekeen zerbait nahi nuen, Opuseko unibertsitatara ez nuen joan nahi eta NUPen hori zen letren aldera gehien lerratzen zena. Gainera etxean gauza praktiko bat nahi zuten. Ez naiz damutzen. Zerbaitetarako balioko zuen. Nire seriotasuna berresteko, adibidez, gizon serio izaten jarraitzeko. Neure buruari ere esaten nion idazle jende asko Zuzenbidea ikasitakoa zela, Igor Estankona, adibidez. Berehala ikusi nuen argi, eta bukatu bezain laster literatura kontuetara bideratu nintzen.

NORTASUN AGIRIA

Angel Erro duela 34 urte (1978ko maiatzaren 12an) sortu zen Burlatan. Zuzenbidean eta Euskal Filologian lizentziaduna, hizkuntza, literatura eta musika klasikoaren maitale sutsua da. Euskaldunberria. Bi poesia libururen egilea: *Eta harkadian ni* eta *Gorputzeko humoreak*. *Desira desordenatuak* liburuen 14 egileetako bat eta haren harira sortu zen *Ez dok armairu* ikuskizuneko partaide izandakoa. *Volgako batelariak* eta *31 eskutik* blogetan, ARGIA aldizkarian, *Nafarroako Hitza* eta Iruñerriko Euskalerrira Irratiko hiru saiotan zabaltzen ditu bere artikulu eta gogoetak.

Aitorpena

“Angel Erro ezizena aukeratu nuen, alde batetik, nire aleman zaletasunak eta, bestetik, lotura bitxiak atxikimenduak bultzatuta. Izen autoerreferentziala da. Bere burua adierazten du nolabait. Euskara-alemana hiztegiari “Angel” hitza bilatzen baduzu, euskarazko bere ordaina “Erro” da. Eta alderantziz. *Die Angel* alemanez atearren erroak adierazteko erabiltzen da. Bitxia iruditu zitzaidan eta izen artistikotzat-edo hartu nuen. Batzuetan nire benetako izena ahaztu eta guzti egiten dut eta Harkaitz Herro izenaz norbaitek deitzen didanean, ezin dut harridura sentazio txiki bat saihestu. Edonola, batek ez du inoiz bere burua erabat ezagutzen. Dena da geure buruari kontatzen diogun kontakizun bat, entzun nahi duguna. Esaterako, aurrekoan lagun batek iradoki zidan nire bi poema liburuen izenburuetan (*Eta harkadian ni* eta *Gorputzeko humoreak*) agertzen diren “soberazko” H bitxi horiek nire benetako izenaren agertze fantasmala direla. Nik ez nion inoiz horri erreparatu; izan ere, ez dut uste hala denik, eta biribilki ukatu nuen, beti pentsatu izan dudana eta poemategien izenaz galdetu didatenean erantzun ohi dudana berrituz, hau da, hitz jokoak direla, lehen kasuan Antzinateko Arkadia idilikoa, berde eta oparoa, errealitatearen zakartasunarekin konparatu nahi nuela, harkadiak euskaraz harrizta esan nahi baitu, harkaitzez betetako tokia; bigarren kasuan ere (h)umore hitzaren bisemiarekin jolasa egiten nuen, gorputzeko isurkari klasikoei tinta eta hazia gehituz, umore beltzez, hau da, malenkoniaz. Orain ez dakit hirugarren liburu batean H hizkia sartzera ausartuko naizen (ez dut uste), ezta, sartu nahi izatekotan, hitz jokorik geldituko ote zaidan erabili gabea”.

Gasteizen Euskal Filologia ikasi eta doktoretza tesia prestatzen hasi zinen. Hori bukatzeko asmorik?

Bizialdi honetan ez, edo, izatekotan, jubilatutakoan.

2002an *Eta Harkadian ni* eta 2005ean *Gorputzeko humoreak*.

Liburu gehiago ez, orainoz. Kontzientea naiz badaramadala denbora luzea libururik atera gabe. Eta faltan sumatzen dut jendeak galdetzen didalako eta kazetariak ere bai. Ez da atsegina elkarrizketak egitea, baina bere morboa ere badu bestalde. Nik uste dut elkarrizketa honek txirrinta kenduko didala beste zortzi bat urterako eta, horren ondorioz, hurrengo liburuen kaleratzea berandutuko dela. Eta, are gehiago, ohartzen banaiz ez dela beharrezkoa ezer egitea elkarrizketatua izateko, agian ez dut libururik atera behar izango nire bizitza osoan.

Baina beharrezkoa al da libururik kaleratzea, gaur egun, idazle izateko?

Gero eta gutxiago. Esaterako, egun uste dut



modu ezkutuan lehia bat ezarri dela euskal poeten artean ikusteko zeinek uzten duen liburu batetik hurrengora tarterik handiena. Jon Benitok kaleratu zuen bere azkena bederatzi urte pasata edo Rikardo Arregi Diaz de Herediak bere hamalau urteko isiltasunaren ondoren argitaratu du liburua. Agian hori izan daiteke olerkariak gogogabetzeko modu bat: balio bat bada ahalik eta beranduen liburuak ateratzea, desagertze bidean sar daitezke. Beno, hau tontakeria bat da.

Liburu berririk ez, baina zenbait komunikabide-tan eta sare sozialetan ere etengabe ari zara zu. Inork ez daki garai honetatik zer geratuko den gogoangarri etorkizunari begira. Gerta daiteke, literaturaren eremuan beti ere, orain kontzienteki jorratzen ez dugun eremua izatea gerokoek baloratuko dutena. Seguruenik XVII. mendean idazleak ibiliko ziren erlijiozko liburuak idazten pentsatuz hori zela balio zuena eta hori izango zela euskal parnasora bidaliko zituena, fikziozko lanak eta kanonetatik kanpo gelditzen zirenak oso bigarren mailan utzita. Eta oso oker zebiltzan. Hori daukat nik kontsolamendu txikia. Beharbada Twitterreko sarrerak izan daitezke liburuetan bilduak XXI. mendetik geldituko den gauza bakarra. Edo telebistako iragarkiak Shakespeareren lanak bezala gorai patuko dituzte. Ez da ezer gutxietsi behar eta hori dela-eta arreta handia jartzen diet nik ARGIA eta beste medioetarako idazten ditudan artikuluei.

OFF THE RECORD

Adiskide

Zirikatzailea, trufaria, azkarra eta dibertigarria. Kultura handikoa eta memoria on samarrekkoa. Zitak, izenak eta datuak purrustadaka iristen zaizkio burura, eta handik mingainera esaldi luze eta konplexuetan txertatuta. Ideiak ideiekin kateatuz infinitoraino. Elkarrizketan zehar, behin baino gehiagotan galdu garela, galdu dugula haria daitort. Baina ez du axola. Angelek lasaia, atsegina eta ia baltsamikoa ere badakiela izaten esanen nuke nik. Norgehiagoka intelektual batean adiskide bezala nahiago nuke mila bider, arerio baino.

Hizkuntzazale amorratua zara: ingelesa, frantsesa, alemana... eta latina, greziera pixka bat ere bai, noski.

Bai, baina denetan maila diskretuan. Sinesten ez didanari gonbitea egingo nioke nirekin Sanferminetan ibiltzera hori egiaztatzeko, aste horretan *an-pair* edo antzeko jardunaldi moduko batzuk egiten baitira Iruñean eta hemengo jendeak ez du Erasmus beka batekin inora joan beharrik hizkuntzak praktikatzeke. Hitzak politak dira hizkuntza guztietan. Hitzak maite badituzu zenbat eta hizkuntza gehiago ezagutu orduan eta *background* gehiago ikusten diezu. Azaleko harremana izateari utzi eta maitemindu amorratu bihurtzen zara.

Klasikontzi

“Aspaldian vinilo tempore esaten zidaten ‘zu bezalako gazte bat klasikoekin eta halako gazetan zaletuta, zeinen bitxia’. Ez da hain harrigarria baina hori esaten bazidaten agian izango zen hutsune bat dagoelako, merkatuko horma-hobi bat edo”.

Zure bi liburuetan eta artikuluan askotan klasikoak berreskuratu eta hurbiltzen dizkiguzu egungo irakurleoi. Hori da zure ekarpen nagusietako bat?

Nire “Ekarpen diem”. Lagun batek “klasi-kontzi” deitzen dit. Hala da, baina ez dakit hori horrela den horrela delako edo lehenbiziko agerpen publikoa horrela eginda, este-reotipo hori ezarri nuelako eta gero topikoa elikatzen jarraitu ote dudan ohartu gabe.

Klasikoen bazterketa sistematiko horretan, pentsa daiteke irakaskuntzan ere zerbaitek huts egiten duela?

Agian aukeraketa txarra egiten da. Ez dakit, ez dut gogoan zer ematen ziguten guri, baina inpresioa izan dezaket, beharbada beste arlo batzuetan huts berdina egiten dutelako, jende gazteari aurkezten zaion aukeraketa dela helduek kontsumitzeko edo, aldiz, oso modu fosilduan eta infantilean.

Zer interesatzen zaizu egile hauengandik?

Egon badago nolabaiteko prebentzio edo beldurra klasikoekiko, edo beharbada fama txarra besterik gabe, baina aldeko gauza bat, bederen, badute: denbora. Gaur egungo

gauzetan egina ez dagoen galbahea haien lanekin egina dago. Jende askoren eskuetatik pasa da eta ahaztu beharreko guztia ahaztu da, horregatik jende hori aintzat ez hartzea harrokeria izan daiteke. Klasikoek balio dezakete, besteak beste, topiko batzuk deuseztatzeko, onenak edo *coolenak* garela pentsatzea, adibidez. Geure burua galtzeko arriskua dago azken moda segitzeko joera zoro horrekin.

Umorea zure osagai nagusietako bat da?

Bestea konpentsatzeko, nolabait, bestela mendez aldatu beharko nuke edo apaiz sartu eta ez dut batere asmorik. Baina umorearekin kontuz ibili behar da. Ezin duzu zeure buruaz esan “ironikoa naiz”, edo “umorea saiatsen naiz sartzen nire lanetan”, jendeak zure idazkiak begiratu eta ezer barregarririk ez aurkitzea gerta daitekeelako. Nik bekatu hori jada egina dut. Nire bigarren liburuan, *Gorputzeko humoreak*, umoreaz mintzo nintzela nioen. Halere jende askok aurreko liburua baino serioagoa zela pentsatu zuen. Umorea egin dezakezu nahi gabe edo nahita. Edozein modutan ere, era batera edo bestera izan, historiak zerbaite erakutsi badigu bada umorea, gatza bezala, kontserbagarri ona dela. Nik esango nuke literaturako maisulan ia guztietan umore portzentaje handi bat dagoela.

Produktzio handia egiten duzu: ARGIA, Nafarroako Hitza, Iruñerriko Euskalerrria irratian hiru saio desberdinetan, sare sozialak...

Nire inpresioa da ez dudala ezer egiten. Kontu aitorrezinak kenduta, gauzak geroratzten ematen dut eguneko denbora gehiena. Dena geroko uztea oso joera euskalduna da, Axular handiak, seguruena gazte denboratik proiektatuta zeukan baina hil aurreko urtean idatzitako liburu hartan argi utzi zigun bezala.

Volgako batelariak blogaren inguruko koadrila horretan *enfant terrible* batzuk bildu zineten.

Helburu nagusia

“Ongi pasatzea eta ongi pasaraztea. Orain ez dakit oso Ana Rosa Quintana aldera ez ote naizen lerraturako hau esatean, baina nik uste dut zoriontsu izateko gaudela munduan. Plazan zaudela, jendaurrean atsegina izaten saiatszea betebeharr bat dela iruditzen zait”.

Twitterren

Angel Erroren txio bat Twitterren: “Euskararen zonifikazioa (vintage hori) Zesarren eran baino ezin da. ‘Navarra in tres linguísticas zonas divisa est’ [#Linguae](http://la.wikipedia.org/wiki/Navarra)”.

Hizkera juridikoan koadrilan aritzea agrabantea da. Nik oso ongi pasa izan dut. Asko ikasi eta lagun minak egin ditut bertan. Euskal kulturak astinaldi bat behar zuelakoan geunden eta gauza serioak plazaratu nahi genituen modu zirikatzailean. Blogen urrezko aroan sortu zen; orain nik uste dut hori neurri batean pasa dela jada.

Euskalerrria Irratian Iñigo Astiz eta Hedoi Etxarerekin batera Poeta zombien taldea eratu duzue.

Agian hemendik poeta belaunaldi bat atera daiteke. Eta emaitzak ere izan ditzake: Iñigo Astizekin, eta hau erdi eskusiba da, lau eskutan idatzitako poema liburu bat burutzen ari naiz. Nire itzulera poetikoa izan litekeena, beharbada. Gaia ez da serioegia, poema zirikatzaileak euskal kulturaren inguruan. Ezer aterako ez balitz ere, behintzat ongi pasatu izana geldituko zaigu.

Poeta euskalduna izanda, zure herrikide gehientzat ez zara oso ezaguna izanen. Ez duzu inoiz pentsatu erdaraz idaztea?

Ni naiz kexatzen lehena euskara eta euskaldunak Nafarroan ikusezin bihurtu nahi gaituztelako, baina hala ere, oso eroso iruditzen zait jende artean diluitu ahal izate hori. Jende askok Europa ekialdeko hiztuntzat hartzen gaituela iruditzen zait eta batzuetan sentitu edo fantaseatu dut horrekin. Ikusi besterik ez dago batzuek nola begiratzen zaituzten eta nola eusten dioten poltsari. Eroso sentitzen naiz jakinda ez didatela zutabe bat eskatuko erdaraz. Euskara armairu handi eta eroso da niretzat. Elkarrizketa hau bera seguru nago aitak ikusiko duela eta galdetuko didala ea zertaz ari naizen. Nire aitaz ari naizen paragrafo hau bera ez du berak ulertuko eta hori lasaigarria zait. Sarrionandiak zioen kartzela-zainen aurrean euskara zela eremu libre bakarra eta nik ere sentazio hori daukat askotan. ■



Xolomozko burrunzia

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Nola indartu seme-alaben ikasketa prozesua

Guraso denen nahia da euren seme-alabak aise molda daitezela eskolan, eta denen kezka da etxean zer jarrera eta jokabide hartu eskolarako joan-etorria xamurrago gerta dakien.

Nerea Agirre Mondragon Unibertsitateko irakaslea da, HUHEZI fakultateko Ikaste-Irakaste gunekoa, eta pista batzuk eman dizkigu.

Testua:


| ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA |

AHALIK ETA eduki gehien pilatzeaz arduratzen zen eskola akademizistaren aurrean, egungo eskolaren helburua oinarritzko konpetentziak edo gaitasunak lantzea da. Agirrek konpetentziak giltzekin alderatu ditu: “Garbi eduki behar dugu eskolak bizitzarako oinarritzkoak diren giltzak eskaini beharko litzukeela. Eskolak aldaketa prozesu batean daude, oraindik bide asko dago egiteko baina konpetentzien norabidean doaz, eta oraindik batzuetan eskolatik ematen den erantzuna ez da guztiz ideala. Gurasoek helburu horretan kokatuta egon behar dute, jakin behar dute hori dela eskolaren funtzioa”. Halako ibaien izenak gaizki idaztea edo zazpiko taula ez menperatzea baino ikuspegi zabalagoa eskatzen du, beraz: “Bizitzarako oinarritzko giltzak dira zoriontsu izateko, ikasten ikasteko, besteekin elkarbizitzeko, inguruarekin harreman-ahala izateko, modu autonomoan funtzionatu ahal izateko gaitasunak, besteak beste”.

“Ez du ikasteko balio”

“Balio al du ikasteko?” galdetu izan zen etxe askotan umeari ikasketak ordaindu edo zuzenean lanera bidali erabakitzeke. Oraindik guraso askoren sakoneko galdera hori da. Agirrek ikasle eredugarriaren irudia desegitea eta

GURUSHAKTISBLOG.COM



aniztasuna ospatzea aldarrikatu du: “Aniztasun handia dago pertsona guztion artean. Pertsona bakoitzak pentsatzeko, ekiteko, sortzeko modu ezberdinak ditugu. Guraso gisa aintzat hartu beharko genuke aniztasun handia dagoela ikaste-estiloetan, ikasteko-gaitasunetan, erritmoetan eta interes nahiz motibazioetan. Positiboena litzateke gure seme-alabak zentzu horretan ahalik eta ongien ezagutzea, pertsona bere osotasunean ikustea, bere gaitasun, jakin-min eta hutsuneekin. Horrela, hortik abiatuta lan egin ahal izango dugu”. Gainera, gaitasunak landu beharrekoak dira: “Oso arriskutsua da gaitasunekiko ikuskera estatikoa izatea. Pentsatzea gaitasunak aldaezinak direla, berezkoak, genetikoak... Momentu, ikaste-testuinguru eta modu aproposak topatuz gero gaitasun horiek garatu ditzakete pertsona denek. Berdin dio zer gaitasun mailaz ari garen; baita gaitasun batean

hutsean bagaude ere, garatu daiteke. Eta pausoak denontzat dira berdinak: 0tik 1era garatzen duenak 7tik 8ra garatzen duenaren neurri bereko pausoa ematen du”.

Ahuldadeen aurrean zer

Pertsona denok ditugu landu beharreko alderdiak, eta umeek ere bai. Zer egin ebaluazioetan gordinen zaizkigun puntu horiekin? Agirrek denaren gainetik zer zaindu behar den azpimarratu digu: guraso eta umeen arteko lotura: “Garbi eduki behar dugu testuinguru jakin batean, eskolan, alderdi batzuei lotuta egin den ebaluazioa dela. Horrek ezin du inolaz baldintzatu guraso eta seme-alaben arteko harremana. Guraso eta umeek oso garbi eduki behar dute hori”. Eskolako gaiek etxean tentsioa sortzen al duten aztertu dezake bakoitzak: “Batuetan nota kontuak ateratzen direnean gure jarrera aldatzen da, gorpuzkera eta ahots tonua, elkarriketa gelako intimitatetik sukaldeko mahaira eramaten dugu... Gauza izan beharko genuke gai hau naturaltasunez lantzeko, adibidez salako giro lasaian”. Eskolako arazoak erlatibizatzeke estrategia ere proposatu du Agirrek: “Inguruan bilatzea gure seme edo alabarentzat positiboak diren erreferenteak, eta ibilbide akademiko bikaina egin ez dutenak. Askotan helduok ezkututzen dugun gure ibilbide akademiko hori ere eurekin partekatzea, ikusteko askoz gauza gehiago dagoela bizitzan ibilbide akademiko horrez gain”.

Behin arazoa bere neurri ekarrira eta arazoei adarretatik eusteko, oso lagungarria da haurrari gabezia horiek gainditzeko berak badiuen baliabideak bilatzen laguntzea: “Arreta ez dugu zailtasunetan jarriko, hauei aurre egiteko haurrak dituen trebetasunetan baizik. Ahaliz horietatik abiatuz zailtasunak gainditzeko edo

hobetzeko estrategiak aukeratzen ikasiko du”.

Bere gaitasunez eta lorpenez kontziente izateko, garrantzitsua da ongi egiten dituen gauzak aitortzea eta baloratzea, beti ere gorai-pamentan erori gabe: “Gurasoon harrotasuna ez denez horren arabera aldatuko, berak hartu behar du kontzientzia ongi egin duenaz”. Emaitzari bakarrik ez erreparatzeko ohartarazi du Agirrek: “Askotan ahazten ditugu bidea bera edo egindako lorpen txoak eta jokabideak baloratzea. Gorai-patzean, gu gurasook, haurrak egin duen zerbaitengatik nola sentitzen garen azpimarratzeko joera dugu. Are interesgarriagoa litzateke berarengan edo beste pertsonengan izan duen eragin positiboak azpimarratzea: hori egiten egon zaren bitartean jarra lasaia edukitzeak egin behar-koa arretaz burutzen lagundu dizu, edo Mireni zeregina nola egin azaldu zenion eta poz pozik dagoela dirudi...”

“Arreta ez dugu zailtasunetan jarriko, hauei aurre egiteko haurrak dituen trebetasunetan baizik. Ahaliz horietatik abiatuz, zailtasunak gainditzeko edo hobetzeko estrategiak aukeratzen ikasiko du”

Nerea Agirre,
HUHEZIKo irakaslea


Eskolarekiko konfiantza eta ikuspegi kritikoa

Ebaluazioetan hasten dira arazoak eta horra mugatzen da begirada etxe askotan. Agirrek zera gomendatu digu: “Garrantzitsua da ebaluatzeke sistema ezberdinen inguruan gurasoek ikuspegi irekia edukitzea eta seme-alabei irekitasun hori transmititzea. Modu batean erlatibizatzea. Ebaluazio gehienek eredu bat hartzen dute, markatuta dagoena, eta ebaluatzen dutena da ea ikaslea eredu horretara hurbildu den edo ez. Seme-alabekin konpartitu daiteke zer den ebaluatzen dena, guk geuk badakigula nota horien irakurketa zabalagoa egiten”. Eta nola ez, gurasoak asko ikas dezake ebaluatzeke izan direnei entzunda: “Gure seme-alabei eurek jaso duten nota horrekiko edo ebaluazioarekiko dituzten bizipenak entzutea garrantzitsua da. Eurek zer irakur-

**GURASO ELKARTEEN
HEZKUNTZA JARDUERA ONEN
3. LEHIAKETA**

lehen saria **1.500€**
bigarren saria **1.000€**
hirugarren saria **500€**
sari berezia **1.000€**

www.ehige.org/praktikaonak






ESKOLA ETA ETXEA

keta egiten duten entzutea”. Gurasoek umeei entzunda beren irakurketa egiten dute, baina lehenik ikuspegi denak jaso behar direla ohar-tarazi du Arrietak: “Arriskua dago gurasoek beren irakurketa egiterakoan epaitzea edo zalantzan jartzea bai seme-alaba bera edo irakaslearen lana. Arrisku hori hartu aurretik, irakaslearen irakurketa jasotzea beharrezkoa da gure ikuspegia osatzeko”. Guraso eta irakasleen arteko errekonozimendua eta elkar-errespetua da oinarria: “Guraso moduan saihestu beharko genuke haurraren elkarrekintzan gaudenean irakaslearen lana gutxiestea, ebaluazio eredu horren baliagarritasuna zalantzan jartzea. Horrek ez du esan nahi bat etorri behar dugunik, edo ezin dugunik ikuspegi ezberdinez hitz egin”. Ebaluazioaren gaineko gure ikuspegia zabaltzeko baliatu daitezke kurtso hasierako bilera eta urtean zeharreko guraso-tutore bilerak: haurrek landuko dituzten kontuak, egingo den ebaluazioa, izango dituzten etxerako lanen izaeraren berri izatea. Eta zalantzen aurrean, tutorea-ekin harremanetan jartzea.

Norberaren irudi positiboa eratzten lagundu

Autokontzeptua edo norberak bere buruaren gainean duen irudia urtean poderioz eraikitzen da, elkarrekintzan, norberarentzat esan-

guratsuak diren pertsonekin (familia, irakasleak, ikaskideak...). Auto-irudiak eragin nabaria du nortasunaren garapenean, ikaskuntza prozesuan eta norberaren eta besteekiko harremanetan. Autokontzeptu positiboari esker, ikasteko jarrera positiboagoa izaten da, autonomia, erabakiak hartu eta erantzukizunak onartzeko joera handiagoa (norberaren mugak argi izanik), frustrazioa onartzeko gaitasun garatuagoa, harreman positiboagoak eraikitzeko gaitasuna...

Agirrek ohartarazten du haurraren auto-irudiaren berri izateko baliatu dezakegula eskolari buruz kontatzen diguna, eta baita ebaluazio eta azterketen emaitzak ere: “Berak nola irakurtzen ditu bere notak eta horren arabera bere buruaz zein irakurketa egiten du? Helburua zer esaten ari den eta nola sentitzen den ulertzea da. Epaitu gabe. Entzunaz”.

Hortik abiatuta lagundu ahalko dio gurasoak, bestelako mezuak eta erreferenteak eskainiz, bere auto-irudi hori modu positiboan eraikitzen. ■



argia.com Etxerako bidaltzen diren eskolako lanen aurrean gurasoek nola jokatu iradoki digu Agirrek. Argia.com webguneko Gaitzerdi blogean duzue.

EGIZUHARPIDETZA EGIOZUHARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 145 € / Ipar Euskal Herrian 176 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefona

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 • harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Beimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)



ZELOR-EMEN
MULIEREN
HERRIETAN



BORTIZKERIA ARBUIAGARRI BALDIN BAZEN NONAHITIK
ZETORRELA ERE... ZERGATIK BI ARRETA ZERBITZU?

TERRORISMOAREN
BIKTIMENTZAKO

ERRORISMO
AREN
BIKTIMENTZAKO





DANI BLANCO

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Europar Batasuna obretan

EUROPAR BATASUNEAN (EB) federalismo politikoak ez du inoiz indar handirik izan. Erakunde hau sortzeko eta garatzeko arrazoi nagusia ekonomikoa izan da. Baina, integrazio ekonomikoko gehienek kaltetu egiten dituzte eskualde pobreenak, aberatsen mesedetan. Horregatik, integrazio adibide asko bortxaz gauzatu dira, AEBetako Gerra Zibilean Iparralde federalistak Hegoalde konfederalistari garaitu zionean bezala. Beste batzuetan, integrazioak baketsuak izan dira, Alemaniako Mendebaldeak Ekialdea ekonomikoki kolonizatu zuenean bezala.

Eskualde pobre batek integrazioa onartzeko motibo desberdinak izan ditzake: ondorio ekonomikoaren gaineko ezjakintasuna; eskualde aberatsago bati lotuz laguntza ekonomikoa erdiesteko esperantza; edota nazio irudikatu baten batasuna bultzatu nahia. Halere, bortxaz edo bakean burutu diren integrazio gehienek homogeneousun linguistiko gradu altua dute beren alde. Horri esker, lurralde pobreetatik aberatsetara doan emigrazioa ihes-hodi bezala funtzionatzen du protestak bartzeko. Alemania batu denetik, Ekialdeko gazteriak erruz emigratu du Mendebaldera.

Estatu-rik gabeko nazioentzat federalizazio prozesutik kanpo gelditzea oso arriskutsua izan daiteke, horregatik estatua eskuratzeko premia. Eskoziak eta Kataluniak beraien bidea hasi dute

Eguno EBn Alemaniako batasunaren antzeko fenomeno bat bizi dugu kamera geldoan. Proiektu federal ekonomikoaren sinbolaria euroa da. Maila ekonomiko oso desberdinetako herrialdeek moneta berdina hartu dute eta gauzatu egin dute EBk inposatutako pribatizazioen agenda. Noren mesedetan baina? Esloveniako enpresek ez dute gaitasunik Alemaniako pribatizatutako enpresa publikoak erosteko. Aldiz, alemanek erraz asko erosi ditza-

kete esloveniarrak. EBk eskualde aberatsak gehiago aberastu eta pobreak gehiago pobretu ditu.

Baina, EBk arazo bat du, munduko gaitzatzeko integrazio prozesu gehienetan ez bezala, bere baitan aniztasun linguistiko oso handia du eta, beraz, emigrazioaren ihes-hodiak ez du behar bezala funtzionatzen. EBko agintariak integrazio ekonomikoa laguntzeko ezinbestekoa dute hertsiki lotuta dauden integrazio politiko eta kulturalen sakontzea. Bidea ez da erraza, potentzia ekonomiko eta politikoen artean konpetentzia dagoelako. Batzuek (Britainia Handiak, Suediak...) erabaki zuten ez hartzea euroa, ziurrenik Alemaniarekin oso lotuta ikusten zutelako. Hausnarketa horren hurrengo fasea da Britainia Handian irekita dagoen eztabaida: EB barnean mantendu lotura malgukin edo atera. 2015ean kontserbadoreek irabazten badituzte hauteskundeak, David Cameron-ek eztabaida argitu egingo dela iragarri du 2017an egingo litzatekeen erreferendum batekin. Britainia Handiak hartuko lukeen erabakia irtetea balitz, beste herrialde batzuek antzeko hautua egin dezakete. Ondorioz, EBko federalizazio proiektuak abiadura azkartua hartuko luke estatuaren oinarrituta.

Bien bitartean, estaturik gabeko nazioentzat federalizazio prozesutik kanpo gelditzea oso arriskutsua izan daiteke, horregatik estatua eskuratzeko premia. Eskoziak eta Kataluniak beraien bidea hasi dute. Flandriak lurraldetasunarekin arazo bat du, baina bidea urratzen ari da sezesioaren atari gisa konfederazioa proposatuz. Euskal Herriak ordea, arazo latza du lurraldetasunarekin; ez da bakarra, aipaturiko beste nazioen alboan barne aniztasun handiagoa du eta abertzaleek ez dute gutxieneko proiektu konpartiturik ikuspegi sinbolikoan eta estrategikoan. Gure etxean edota Europan, nork hartuko du seriozki euskal estatu baten proiektua bere oinarritzko sinboloak ere eztabaidan dituen? Euskal Herria/Euskadi/ Nafarroa, ikurrina/Nafarroako bandera... ■





Patxi Zabaleta

◆ ARALARREKO KOORDINATZAILE NAGUSIA

ETA, erakunde zibila bihurtu

ALDEBARKARREKOTASUN PRINTZPIOA. Bakegintza eta normalkuntza demokratikoaren ibilbide orri-tzat aitortua izan den Gernikako Akordioan jasozten da aldebakarrekotasun oinarria. Printzipio horrek aldatu egiten ditu erro errotik ordura arte aldarrikatu eta erabilitako bideak.

Borroka armatua behin betiko utzi zenetik hamabost hilabete igaro ondoren, argi baino argi-ago dago Espainiako Gobernuaren zain geldituz gero, oraindik inolako urratsik eman gabe egonen ginatekeela. Borroka armatuaren behin betiko uztea ez zen inoiz gauzatuko, baldin Estatuak elkarriketa emateko zain geldituz gero.

Orain, berdin-berdin gertatzen da eta gertatuko da. Estatuak ez dute elkarriketako aukerarik emanen, eta ez dute ere espetxe politikaren aldatarrik egingen. Zergatik? Amortizatuta daukatelako jokabide horren zama politikoa. Armak uztea eta erakunde deuseztatzea aitzakia dialektikoak dira onura politikoak eskuratzearren, Bilboko manifestazio erraldoia ezkutatzen saiatzea bezala.

Aldebakarrekotasunaren ildotik eman beharko dira beste bi urrats: armak uztea lehena eta ondoren ETA erakunde erakunde zibil soilik bihurtzea eta aitortzea. Urrats horiek nola eta noiz egin beharko lirartekeen beste maila teknikoko gorabehera da.

Aldebakarrekotasun printzipioak ETAREN izaera eta jatorri politikoa azaltzen du, indarkeriaren ondorioei giza mailako aterabidea ahalbidetuz eta indarkeriaren uztea ordainik gabea behar duela frogatuz.

ERAKUNDE ZIBILA BIHURTZEAREN ZERGATIA. Bakegintzako protagonista Euskal Herria bera da. Bakea gainera, lehen mailako balorea den heinean ezin da ez baldintzatu, ezta ezerekin trukatu eta

askoz gutxiago ordaindu ere. Herri etorkizunerako erabakigarria gertatuko zaigu bakegintzan jokabide duinak eta printzipiozkoak erabiltzea.

Egia da Aieteko Konferentziak indarkeriaren ondorioei buruzko elkarriketa eskaria egin ziela bi estatuak gobernuei, ETAK borroka armatua utzi ondoren. Baina Espainiako eta Frantziako estatuak, ezetza ozenki eman eta errepikatua dute. Alferrikakoa ez ezik, kaltegarria izanen litzateke nahi ez duenari elkarriketa aldarrikatzen jarraitzea.

Aitzitik, gizartearen on-ikusia eta iritzia da irabazi beharrekoa; Euskal Herriko eta Espainiako gizartearena. Horixe zen 1975eko eta 1976ko amnistiaren aldeko kanpainak xedetzat zeukate-na eta orduko ahalegina ez zen oraingoa baino errazagoa, inork besterik uste badu ere.

Armak behin betiko entregatu ondoren, ETA erakunde zibil soilik bihurtuko da eta horrela aitortu beharko luke. Izan ere, preso politikoak eta indarkeriaren

beste ondorioak dirauten bitartean, egokiagoa dirudi ETA deuseztatu beharrean, erakunde zibil soilik bilakatzea. Eta jakinaren gainean egonik, arbuiapean eta gaitzespen guztiekin hornituko dutela lehen-lehen unetik.

ETA arrazoi politikoengatik sortu zen, arrazoi politikoengatik hartu du borroka armatua behin betiko uzteko erabakia eta arrazoi soilik politikoengatik dagokio armak entregatu, erakunde zibila soilik bihurtu eta dagokionean hutsaltzea.

Egoera berriak eskakizun guztiak aldarrikatzeko aukera sortuko du, amnistia barne, Gernikako Akordioak zehazki gogoratzen duen bezala. Bakea ez da oparitzen, askatasuna oparitzen ez den bezala, baina bakea egitearren barne husten denak irabazten du herria. Euskal Herriak ETAREN bukaera duina eskatzen du. ■

Armak behin betiko entregatu ondoren, ETA erakunde soilik zibil bihurtuko da eta horrela aitortu beharko luke. Izan ere, preso politikoak eta indarkeriaren beste ondorioak dirauten bitartean, egokiagoa dirudi ETA deuseztatu beharrean, erakunde zibil soilik bilakatzea. Eta jakinaren gainean egonik, arbuiapean eta gaitzespen guztiekin hornituko dutela lehen-lehen unetik



Karlos Gorrindo Etxeandia

EUSKARA TEKNIKARIA ◆



INIGO AZKONA

Déjà vu

HILABETE joan da eta urtarrilaren 12ko manifestazioaren durundiak belarrietan kili-kili egiten jarraitzen du. Manifestari kopuruek, bestalde, estatistika hotzak potolotzeko baino ez dute balioko, aurrerantzean dinamika berdinean jarraitzeko asmorik ez badago. Hurrengo urtera arte itxaroten geratu beharko dugu, bestela, datorren urtarrileko manifestazioan parte hartuko duen jende kopuruak gora egin duen ala ez jakiteko. Eta

pozteko ondorioa aterako dugu hamar mila lagun gehiago joan direla jakindakoan, presoek kartzelan jarraituko duten bitartean, herriak kalera noiz aterako dituen zain, zerutik etorriko zaien liberazio eguna noiz etorriko zaien zain. Hori edo erresignazio kristaua izan beharko dute, badutenez gero, eta pentsatu zigorra bete beharko dutela haiek aukeraturako borroka bidearen ondorio logiko eta naturala delako. ETAko

izateak horixe baitakar berez borroka izaerarekin batera: militantismoa edo etsipena, norberaren patu gisa. Baina bada beste biderik ere aurrekoak bezain duinak, eta da egokitzea bizi dugun egoera erreala eta borroka dinamikoagoa egitea norberaren borroka-kontzientzari kalterik eragin barik, bizi duten egoeratik libratzearen. Dena den, eta ni ez naiz iraganza-

Bada beste biderik ere, aurrekoak bezain duinak, eta da egokitzea bizi dugun egoera erreala eta borroka dinamikoagoa egitea norberaren borroka-kontzientzari kalterik eragin barik, bizi duten egoeratik libratzearen

le kasposoa, behin eta berriro iragan antzuz elikatzen den horietakoa, orainean bizirik dagoela sentitzeko, faltan ditut duela hogeita hamabost urteko espiritu elkartasunezkoak. Presoak euskal gizartearen parte oinarrizko ikustera iristen ginen garaietakoa. Gogoan ditut Amnistiaren Aldeko Astean antolatu ziren manifestazio, mobilizazio eta greba politiko

etengabe eta emankorrak. Edo zelan ahaztu Askatasunaren Ibilaldia, Euskal Herri osoan zehar hainbat eta hainbat jende mobilizatu zuena, presoak kaleratzea (amnistia) aldarrikatuz edota Euskal Herriaren izaera nazionalaren onespena. Gauza eta egoera batzuk ez dira urteen joanean deus aldatu, baina. Historia errepikatu egiten da ziklikoki. Eta euskal gizartearen egungo egoera koiunturalak zerikusi txikia du orain dela hogeita hamar urtekoarekin alderatuz. Baina badira

oraindik sendatu gabeko hainbat zauri, zornatzeko bidean daudenak.

Presoak kalera aterako baditugu, *déjà vu* bat bizi beharko dugu nahitaez, eta bueltatu eta berreskuratu sasoi bateko espiritua, kartzelatan dagoen gizajendea bertan usteltzen ikusi nahi ez badugu. ■



DANI BLANCO



Ixiar Rozas



IDAZLEA

(H)egia

Ertza, gandra, hainbat hegaztik buru gainean duten irtengune haragitsua edo buruko luma multzoa. Mendi baten hegia, haitzez osatua, egunotan elurtua, isil, hotzean eta izotzean otzan. Uhinen gain apartua, azkenaldiko ziklo-genesiak eta gaur goizaldean ere harrotua. Zenbait egituratan (hezur, hazi, gorputz atal eta abarretan) agertzen den lerro irten eta jarraia. 27 putrek han goitik jendetza ikusi dute aldapa malkartsuan gora egiten. Esku hutsik, etxerik gabe, ahora eramateko mokadurik gabe, ots(a)ilean babesa emango dion gotorleku baten bila.

Ertzean eta tolesduretan dagoen haragi epelaren bila. Michael Hanekeren *Le temps du loup* (Otsoaren denbora) filmean urik gabe geratzen zen gizartearen parabola-irrentzu osagarria. Bai, esan dio lagun batek besteari bide erdian, zatoz nirekin baso-ertzera, horrela, bion artean falta dena osatuko dugu. Behin eta berriro errepikatu dio, bion, hiruron, lauron, boston, seion, zazpion, zortzion, bederatzion, denon artean esan arte. (H)egi haragia, zu eta biok beste egiten gaituena. ■





Iván Giménez

◆ KAZETARIA

CAN: erregimenaren zutabea noiz eroriko

AZKEN BOLADAN, Iruñera datozen turista saldoek, ohiko bisita lekuez gain (Santo Domingo aldapako ukuluak, Estafetako bihur-gunea, zezen plaza...) txoko berri bat aurkitu dute: San Bartolome gotorleku txikiaren harresiko arraila. Iruindarrok uste genuen ia ez ginela ezertaz harritzen, baina turista horiek arrakala xume bati argazkiak egiten ikuste hutsak lortu du harridura berriro gudan piztea. Nafarroako Gobernuako Turismo Departamentuak lortu ez duena Cerveraren eta Asiainen *sugetzarrak* erdietsi du: Nafarroak (Shakespearek aurreikusi zuen bezala) mundu osoa harritu du.

Bistan denez, arrail horretan jadanik ez dago inongo gutun-azalik. Baina egon al zen noizbait? Ala guardia zibilek jarritako amua da han egondako dokumentu bakarra? Eta gutuna existitu bazen, zer zuen barruan? Agian, norbaitek Cerverari aurea hartu zion eta argitaratu diren azken eskandaluak arrail xume horretatik irteerakoak dira.

Agian, gutun-azal ospetsu horretan azaltzen ziren azken urte hauetan UPNren eta PSNren buruzagiek kobratutako 800.000 euroko dietak, gehienak ezkutukoak, aitortu gabeak. Edo Washington-en Nafarroako Kutxak 2010ean irekitako bulegoaren truke (ia hasieratik itxita egon dena) urtero ordaintzen den 3 milioiko alokairua. Edo CANek zenbat diru ebatsi dien ehunka hiritarri lehentasunezko akzio traidore horien bidez. Edo azken hiru urteetan enpresaren balantze ekonomikotik nola lurrundu diren 1.000 milioi euro... Edo

nork agindu zituen 80 milioiko galerak eragin zituzten hainbat inbertsio industrial, hori dena urte bakar batean (2011n, hain justu). Edo inpunitate, zigorgabetasun sentsazioa noraino iristen den 500 euroko billeteak hain modu zakarrean garbitzeko, Barcinaren Gobernuako kontseilari-ohia zen Pejenaute gizajoak egin zuen bezala. Edo non dauden CANen Iruñeko bulegoak saltzeagatik kobratutako 86 milioi euroak, eta nortzuk (Barcinaz gain) erosi zuten urteko %6ko interesa bermatuta (euriborra %1era ez dela iristen kontuan hartuta. Edo nork erabakitzen zuen UPN, PSN, patronala eta Nafarroako betiko erregimena kudeatu dutenen aldeko mailegu malguegiak (nolabait esateagatik) onartzea.

Hala ere, Cervera-Asiain aferak harrotutako hautsak ez dezala lausotu benetako mamia: Nafarroako erregimenaren zutabe nagusia, Nafarroako Kutxa hain zuzen ere, elite ezagun baten proiektu faroniko eta galgarriak finantzatzeko tresna hutsa izan da: Gendulain mamu-hiria, Logroñoako autobiodea, Nafarroako Ubidea, eta abar. Gutxi batzuek gogoratuko dute Washingtongo bulegoko inaugurazio haluzinagarri hartan Urdangarin bera izan zela, eta negozio-rako aholkulari bezala De Guindos aukeratu zutela. Orain Miguel Sanz, Enrique Goñi eta Yolanda Barcina epaitegian daude haien txanda itxaroten, Palmako dukearekin berriro noiz elkartuko zain. Baina nola? Giltzapeturik edo gutaz barre egiten? ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK
Joakin Arregi
“Txé”



Doinua: Habanera.

*Viva
Chavez
carajo!*



Gizaki bat dugu Hugo Chavez dauka abizena. Simon Bolivarren nahia berpizteko sortu zena. Sustraitik aldarrikatuz askatasunaren lema. Hunkigarria ez al da horrelako ekarpena? Iraultzaren komandante pobreen itxaropena. Gizarte humano baten erreferentzi goren. Buruzagi originala zintzoa eta gardena. Eredu bolibartarrak daukan zain emankorrena.

“Denok gara Chavez” horra herri xehearen mezua. Pasioz gainezka dago maitasun horren pisua. Sinestun, ateo, edo indigenen errezua. Bakoitzak egoeraren neurriko konpromezua. Mendebaldeko leihotik agian da konplexua. Baina ALBaren izarrak argitzen du prozesua. Kostako da itzaltzea berak piztutako sua. Hain zaila baita izaten Chavez bezain amultsua.

Helburu zehatzak daude Chavezen konpromisoan. Misiok oinez jarriz iraultzarako pausoen. Elkartasuna hedatuz etxean eta auzoan. Indarrak xahutu ditu bolibartarren ondoan. Unez-une erantzunez defentsan ta erasoan. Izar gorriaren ikur ALBaren mapa osoan. Gorri-gorri dago lurra chavismoaren soroan. Frogatuaz goldean ez duela egon itsasoan. ■

Iratxe Esnaola

♦ IDAZLEA



DANI BLANCO

Liburu askeak

JACQUES BONNET idazle eta itzultzaile frantsesaren *Des bibliothèques pleines de fantômes* (Anagrama, 2010) liburuxoa irakurri berri dut durduzaz eta dardaraz. 20.000 aletik gorako liburutegi pribatuaren jabe, liburuei dien maitasuna islatzen du haien kudeaketa zer nekoso baina atsegingarri zaion kontatzen dihoakigun bitartean. Liburuak pilatu, ordenatu, babestu eta irakurtzeko abenturak bizi du Bonnet etxeko bakardadean. Liburuekiko maitasunean hazi gara gutako asko. Behinola, etxe propio baten eta berau liburu betetzearen ideia ere izan genuen. Apalategietako liburu maiteez desegiteko ideiak ikaratu gintuen, baina gaur gaurkoz, Bonneten liburuaren aurrean egonezina sentitu dut. Prekariedade ekonomikoak, aurrea, eta espazio faltak, hurrena, pilatze lanak eragotzi zizkidaten, eta horrekin batera, apalategien aurrean galdera batek zeharkatu. Liburuei nien atxikimendua egoskorra zen. Eta liburuak pilatzea, esate batera, autoak pilatzearen pareko bazen? Are, jakintza gordetzen zuten liburuek autoek ez bezala, eta etxean gordez gozamenaren zirkulazio librea ekiditen. Liburuak maitatzen dira beste era batera ere. Irakurri eta solte utzi, oparitu, trukatu, Bookcrossing-a praktikatu. Jabetza goستن ikasi dugulako da askatzea mingarri, baina solte uztea edukitzea baino plazentago dateke. Federico García Lorca 1931n bere jaioterriko liburutegiko inauguraziorako prestatu zuen *Medio pan y un libro* diskurtsoan halaxe aitortzen zuen, erosten zituen liburuak oparitu egiten zituela.

Liburu fisikoen xarma artean eskertzen dugunoi liburuguneak eta liburutegi askeak geratzen zaizkigu, Interneteko artxibo doakoek bestera. Duela bi urte Hernaniko Karbonera Etxe

Okupatuaren abaroan jaio zen Ikatza Liburugune politiko soziala datorkit gogora, non makina bat jakintza trukatu den, izan liburuaren sartu-irtenari, izan eztabaidei esker, jabetza pribatuaren aurkako kultura hedatzen beti. Demanda judiziala jaso zuten joan den abenduan eta desalajo arrisku pean dira egun. Proiektu hau babestea jakintza zirkulazioa babestea da, eta kultura soilik merkatu ereduan txertatu nahi duen modeloari zirrikituak zabaltzea. Bonnet-en liburutegi partikular demasiazkoaren gogorapenak derrigorrean

liburutegi publikoei diedan txera aitortzera ere banarama. Berauei esker idazle egindakoak ez dira gutxi izan.

Ray Bradbury-rentzat benetako unibertsitateak ziren, aukera berberak eskaintzen dituzten eskola bakarrak. Hainbat liburutegi publikoren itxieraren aurka altxa zen eta *Fahrenheit 451* aski argigarririk dateke kasua ilustratzeko. Hain

zuzen, Guy Montag protagonistaren abizena daraman Montag kolektiboa akordarazten dit, 2010ean sortu zen Donostiako Liburutegi Askea. Edo Charles Bukowski eta *The burning of the dream* poema-uluua, Los Angeles hiriguneko liburutegia kiskali zenean idatzia. Eta beste hainbeste liburutegi maitale eta esker oneko.

Aldea dago, bada, liburuak etxeko bakardadean isolatzearen eta eskuz esku pasieran ibiltzearen artean. Ez ditut etxeko liburuak abolitu nahi, begi beti berrituz so egin, baizik. Gure iragankortasuna euren iragankortasunarekin

nahastuz joaten utzi, sartzen laga. Bonnet-ek dioskunez, Charles Valentin Alkan konposatzaile frantziarra hilda topatu zuten 1888ko martxoan bere etxean, ustez bere

liburuekiko maitasunak azpiratua, alegia, etxeko liburutegi erraldoiak zanpatua.

Kasu! ■



Antton Olariaga



IZASKUN ARANDIA

'AGUR ESATEA' FILMAREN EKOIZLE ETA GIDOILARIA

«Azken unean guraso ugari ez zen gauza izan seme-alabak Habana barkuan sartzeko»

1937an, gerra betean, Euskal Herriko 4.000 haur Habana itsasontzian sartu eta Britainia Handira erbesteratu zituzten, erasoetatik babesteko. Gerra bukatu ostean, 250 haur inguruk ez zuen itzultzerik izan eta gaur egun 80 eta 90 urte artean dituzten ume haien bizipenak berreskuratu dituzte Agur esatea dokumentalean (REC eta Izar Films). Matt Richards britainiarrek zuzendu du filma eta Izaskun Arandia tolosarra aritu da gidoilari eta ekoizle.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Off ahotsak dira filmeko protagonistak, gerrako haurren hamalau ahots denera, garai hartako bizipenak kontatzen. Nolako esperientzia izan zen haiekin biltzea?

Southampton Unibertsitatean aurkitu genituen grabaketak, hamalau baino askoz gehiago, eta ingelesezkoak eta hunkigarriak hautatu genituen. Grabazioak erabiltzeko baimena eskatu genion unibertsitateari, baina baita haur bakoitzari ere, banan-banan, eta Erresuma Batuko izkina batetik bestera mugitu nintzen, hasieratik argi neukalako beraien bizitzan horrela sartu behar bagenuen beharrezkoa zela proiektua aurkeztea eta elkar ezagutzea. Faserik interesgarriena izan zen, pertsona bezala gehien bete nauena. Paco Robles izan zen ezagutu nuen lehen haurra, 2011n, Londres kanpoaldean, eta esan zidan: "Gutaz ahaztu dira". Hitzez adierazi zuen haietako askok duten sentimendua, itzuli zirenek omenaldiren bat edo beste jaso dutela, baina han geratu zirenek ez. Pacori zin egin nion ahal nuen guztia egingo nuela historia ahaztu ez zedin.

Eta haientzat, nolako esperientzia izan zen oroitzapen horietan murgiltzea?

Gogorra. 75 urte baino gehiago pasa dira, baina xehetasun ugari lehen aldiz kontatu zituzten, familiek eurek ez zituzten kontu asko ezagutzen. Ez dakit lotsa puntu bat egongo zen, edo familia ez arduratzeko kezka, baina estoizismo hori oso *british* da, eta nolabait barneratu egin zutela esango nuke: gainerakoei kontatu ordez norberarentzako gorde eta aurrera segitzea. Horietako baten semeak esan



zidan hark baino gehiago nekiela nik haren aitari buruz. Batzuek, hala ere, ez dituzte hainbat gauza gogoratzen, itsasontzian sartzeko gutxieneko adina 7 urte izan arren gazteagoak ere joan zirelako, faltsututako dokumentuekin. Eta beste hainbatek blokeatuta ditu oroitzapenak, bada Ingalaterrara iritsi aurreko ezer oroitzen ez duenik ere, eta esanguratsua da hori, historia traumatikoak daudelako; biziraupen senarekin lotura du, nolabait.

4.000 haur asko dira, seme-alabengandik banantzeko prest dauden guraso asko. Tes-tuinguruan kokatu eta ulertu beharreko erabakia da?

Bai, oso erabaki azkarra izan zen, muturrekoa, pentsatzeko denborarik gabe hartua. Eusko Jaurlaritzak egin zuen deia, haurrak bonbardaketetatik babesteko, eta berehala egin zen ebaquazioa. Zerrendan 4.200dik gora ziren izena emandakoak eta barkuan azkenean ia 3.900 joan ziren, beraz azken momentuan guraso ugari ez zen gauza izan semea edo alaba uzteko. Oro har, amak izan ziren erresistentzia handiena jarri zutenak, emozionalago erreakzionatu zuten, eta aitek praktikotasunera jo zuten, beharbada gizonak politikan aktiboagoak zirelako eta gertuagotik zekitelako zer zetorkien gainera. Josefina Stubbs-ek pasarte batean kontatzen du bere bizitzan egin duen gauzarik gogorrena gurasoak agurtzea izan dela. Batzuek urte askoren ondoren ikusi zituzten berriz aita eta ama, beste batzuei Ingalaterran zeuden bitartean hil zitzaizkien gurasoak.

Agurraren momentuaz gain, beste batzuk ere bereziki gogoan dituzte filmean. Agurraren aurretik, adibidez, gerra bera.

Haurtzaro zorionsua gogoratzen dute, eta hori nola bat-batean moztu zen, gerrarekin. Askok komentatzen dute aita gauean bilera klandestinoetara joaten zela, bonbardaketak gogoratzen dituzte edota nazionalak sartu heinean lekuz mugitu beharra zeukatela. Maria Luisa Toole-k azaltzen du Donostiatik Zumaiara joan zirela, amonaren etxera, ijitoen moduan gurdira igota, eta ondoren Zumaiaetik Bilbora, gero eta setiatuago zeudelako.

Barkuko bi eguneko bidaia ere nabarmetzen dute. Ez zen xamurra izan...

Traumatikoa egin zitzaizen. 800 lagunentzako barku batean 4.000 joan ziren, estu-estu, eta

itsasoa biziki harro zegoen, denak zorabiatuta eta goitika egiten. Francok *La Cervera* barkua bidali zuen, *Habana* bueltan ekartzeko, baina haurrak ez ziren jabetu. Konturatu ziren barkuak bira eman zuela bat-batean, baina ez zehazki zer gertatu zen. Kapitainak SOS deia bidali zuen Britainia Handira eta bi barku ingeles etorri ziren, *Habana* babestu eta *La Cervera* uxatzeko.

Harrera ona egin zieten herritar britainiarrek, ez hainbeste Gobernuak. Deigarria da herritarren beraien grina.

Bai, Gobernu britainiarrak ez zituen haurrak nahi, baina lobby herritarraren presioa izugarria izan zen, kariatateko eta bestelako elkarte bitartez. Bilbora begiraleak bidali zituzten eta bertako kontsul britainiarraren bitartekari rola garrantzitsua izan zen. Azkenean, Gobernuak esan zuen, “ados, ekarri haurrak, baina ez dugu sosik jarriko”, eta herriak berak hartu zituen haurrak; pentsa, 4.000 haur, oso ingelesa da *charity* kontzeptu hori, okerrago daudenak laguntzeko premia, oso barneratuta dute haien kultura eta ohituta daude atzerriko jendea hartzen.

Euskal Umeen Kanpalekua ezarri zuten eta han izan ziren lehen hiru hilabeteetan.

Bai, euskal dantza taldeak, abesbatzak... sortu eta ingelesko ikastaroak hartu zituzten, baita gainerako ikasgaienak ere. Maiatza izan arren, euri-jasa izugarriak pairatu zituzten eta kanpalden inguruan hobiak egin zituzten, ura barrura sar ez zedin. Une dramatikoa, dena den, Bilbo erortzea izan zen. Oso era hotzean eman zieten berria, bozgorailuetatik, eta denek gogoratzen dute histeria kolektibo modukoa piztu zela kanpalekuan, pentsatu zutelako senitartekoak hil zizkietela. Kanpalekuan lehen aldiz sentitu zuten benetan bakarrik zeudela, familiaratik urrun, eta euren kabuz aurrera ateratzen ikasi behar izan zuten. Ondoren, herrialdeko kolonietan sakanbanatu zituztenez, kontziente izan ziren hasieran pentsatzen zuten hiru hilabeteetatik harago, luzerako iraungo zuela egonaldiak.

Gehienak itzuli egin ziren gerra bukatutakoan, baina 250 bat han geratu ziren, tartean pelikula protagonistak. Batzuek ez zituzten gurasoak berriz ikusi.

Bai, Euskal Herrira bueltatzeko, haurrak norbaitek galdegin behar zituen, baina gurasoak

“Paco Robles izan zen ezagutuen lehen haurra. Esan zidan, ‘gutaz ahaztu dira’, eta zin egin nion ahal nuen guztia egingo nuela historia ahaztu ez zedin”

“Momentuan, abandonatu egin zituztela sentitu zuten askok, nahiz eta adinarekin erabakia arrazionalizatu. Halere, batzuek argi esan didate: ‘Nire seme-alabekin ez nuke halakorik egingo’”



Ezkerreko bi irudietan, filmeko fotogramak. Eskuinekoetan, artxiboko irudiak, *Habana* barkuan eta *Southampton* inguruan umeentzat antolatutako kanpalekuan. Arandiaren hitzetan, konexio lana egin du filmak: “Jende andanak hartu du parte, euren aitona-amonen esperientzia kontatuz, loturak eginez... Proiektuak pelikula gainditu du”.

gerran hil zirelako, erbestera alde egin zutelako edo familiak erabaki zuelako hobe zela haurra han geratzea, 250 ez zituzten galdegin. Hori ere erabaki oso gogorra da, familia asko apurtu ziren horrela. Momentu hartan, abandonatu egin zituztela sentitu zuten askok, minduta eman zituzten urteak, nahiz eta gero adinarekin gurasoen erabakia arrazionalizatzeko gauza izan diren. Hala ere, batzuek argi esan didate: “Nire seme-alabekin ez nuke halakorik egingo”. Baina egoera horretara iritsita zer egingo genukeen jakitea ez da erraza...

Eta zein iritzi dute orain: zorioneko izan zirela, hainbatek esan izan dien moduan, ala zoritxarreko, aberritik eta familiagandik urrun?

Bizitzan aurrera ateratzeko borrokatu duen jendea da, segituan Bigarren Mundu Gerra pairatu behar izan zuten Britainia Handian bertan, baina denak oso baikorrak dira, eta ez dut garraztasunik sumatu euren hitzetan, orokorrean gustura daude izan duten bizitzarekin eta sortutako fameliarekin. Denborarekin ikusi dute Euskal Herrian geratu izan balira, errepublikar izateagatik agian asko sufritu beharko zuketela. Hori bai, euskal sentimenduari eutsi diote. Identitate arazoak aipatu dituzte, ez direlako sentitzen ez hango eta ez hemengo, baina kasu gehienetan euskal kulturarekiko maitasuna transmititu diete ondorengo belaunaldiei.

Bitxia da protagonisten aurpegiak ez agertzea filmean. Artxiboko irudi errealak eta animazioa uztartu dituzue.

Hainbat arrazoiengatik erabaki genuen animazioa jotzea: protagonistak orain oso helduak dira eta grabaketa ordu asko dira, gainera ez da bidezkoa berriz horretatik guztitik pasaraztea. Halaber, haien haurtzaroz hitz egiten du lanak. Eta bestalde, gaztetxoei interesgarri zaien zerbait eskaini nahi genuen, beraien lengoaiara eta bideo-jokoen *look*-era gerturatuz, teknika aldetik *Waltz with Bashir* animazio filma oinarri hartuta.

Iñaki Salvadorren musika ongi uztartzen da kontakizunarekin.

Ikusgai

“Gernikan izango da estreinaldia, otsailaren 8an, eta beste herri batzuetan ere eskatu digute (Elorrio, Arrasate...). Interesa badago, herritarrek ikusi nahi dute, baina aretoetako arduradunentzat ez da lan salgarria. Orain, eskaini ahal izatea, jendeak ikustea eta komentatzea da garrantzitsuen, ahoz ahoko propaganda da gakoa”.

Bai, berak sortu zuen musika guztia eta amestetako kolaborazioa izan da. Iñakiri historia erakutsi genion —urduri nengoen zer esango ote zuen— eta ikusi bezain pronto pianoa eskatu zuen segituan. Bi egunera zerbait bidali zigun jada, proiektua hasieratik ulertu zuen eta oso gustura gaude emaitzarekin.

Erakunde publikoen aldetik ez duzue proiekturako babesik aurkitu. Harrituta?

Egia esan bai, nahiz eta Gipuzkoako Foru Aldundiak diru pixka bat jarri duen, harritu eta nahigabetu egin nau instituzioek interesik ez izatea, nazioartean zabaltzeko proiektu erakargarria delako. Baina aurrera begira jarri nintzen eta hala egin dut lan hiru urtez, beti aurrera.

Crowdfunding eredu erabili duzue pelikula finantzatzeko; badirudi bogan dagoela krisi garaiotan. Zergatik eman behar dio dirua herritarrek egitasmo jakin bati?

Garai zailetan, jipoitua zaudenean piztu egiten da sormena, nahi duzuna egiteko molde berriak aurkitu behar dituzu. Nik neuk ere finantzatu ditut besteen proiektuak, oso gustuko proiektua denean, gertuko jendearena batez ere. Ekarpen txiki bat aski da, baina jende askok lotsa sentitzen du, 5 euro emateko adibidez, gutxi delakoan; 100 lagunek hori ematen badute 500 euro dituzu, ordea. Kontuan hartu behar da baita ere zer eskaintzen diozun ekarpenaren truke (posterra, DVDa...). Guk hiru kanpaina egin genituen, hiru plataformaren bidez: Kickstarter, Indiegogo eta Verkami. Dirua azken biek in lortu genuen batik bat, baina lehenengoarekin proiektua munduko bazter guztietara zabaldu zen eta babesia eman zigun horrek, jende pila batek idatzi zigulako. Azken finean, filmak konexio lana egin du: Facebooken talde bat sortu genuen hasieratik eta horren bidez jende andanak hartu du parte, euren aitona-amonen esperientzia kontatuz, loturak eta harremanak eginez... Leku askotatik idatzi dute eta proiektuak pelikula gainditu du. ■



ERDIKO KAIERA

ELEKATU-ELIKATU

Euskaraz eta edukiz jantzi nahi dute Baiona

Urtea ere ez du Elekatu-elikatu elkarteak, baina ekimen interesgarriak proposatu ditu dagoeneko, baionar euskaldunen eta bertaratu nahiko lukeen edonoren gozagarri. Hilerokoa dute oraingoz hitzordua, azken ostegunetz beti, naturaltasunez euskaraz bizitzeko guneak hauspotzeko xedez. Besteak beste, belaunaldi guztietako jendeak biltzea dute meritua.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

BELAUNALDI guztiek izango zuten seguru-eruenik, euskararen presentzia eskasari aurre egingo dion tresna sortzeko tentazioa. Mamitzea erdietsi duen saio horietariko bat da Elekatu-elikatu elkarteak. Joan den urteko apiril aldera eratu zen, elebitasunari irmoki kontra egiteko planean. Izan ere, Baionan bada anitz kontu eta ekimen, baina itzulpenaz lagunduta beti, irekiduraren estakuruaz, horrelakotan esan ohi den bezala, “inor baztertuta senti ez dadin”. Emaitza, ordea, berez da baztertzailea: hari nagusia frantsesak darama, eta euskara apaingarri bilakatzeko da, erakusgarri hutsa.

Langintza traketsa izan ohi da mota honetako elkarten jarduna lerro zehatzez definitzea, intuizioz gauzak argi xamar izanagatik ere. Zer ez diren, zer izan nahi ez duten, aldiz, agudo esan ziguten Iban Thicoipe, Ekhi Erremundegi, Nora Arbelbide eta Amaieur Lujanbiok, taldearen izenean mahaian bildu zitzaizkigun lau kideek.

Elekatu-elikatuk ez du, kasura, mus txapelketarik antolatuko. Alde batetik, mus txapelketak izan badirelako, euskara hutsean ez badira ere. Baina bereziki, edonork egin dezakeelako. Ekitaldi apartak nahi dituzte, esan nahi baita bestelakoak, ezberdinak, inork antolatzen ez dituenak, eta ahalaz edukiz jantziak.

Halaber, Elekatu-elikaturen helburua ere ez da aldarrikapena. Nekez ikusten dute elkarteak salaketa-kanpaina bat antolatzen, demagun, afixak frantses hutsez daudela-eta.

Hitz Ordua
Abenduan 27an
19:00tan
Merkatuko estatulik

Arkaitz Estiballes eta Fredi Paia

Ostatuen itzulia
+
AFARIA
Kubako Etxean 10 euro

Afarirako izena eman :
06.86.06.81.74 (Jenofa)

ELEKATU
<https://elekatuelikatu.wordpress.com>

2012ko irailetik hasita, bost ekitaldi antolatu ditu Elekatu-elikatuk. Lorea Agirrek eta Kepa Altonagak solasaldi bana eskaini zuten. Atzetik, Txori mugariak eta bertso-afaria heldu ziren. Azkenik, Jon Mirande idazlearen inguruko gaurdia. Ekitaldiak urririk (edo ahalik eta merkeen) izatea dute xede.

Praktika bera dute, izatekotan, aldarrikapena. *Euskaraz bizzi nahi dugu* baino, *euskaraz bizzi* gara dute leloa.

Diru aferen esklabo ez direla izango ere argi izan dute hastapenetik: “Erabaki genuen ez genuela ekitaldirik, kontzerturik edo dena delakorik antolatuko sosak ateratzeko. Ez

ginela horretan sartuko”. Momentuz, bide gastuen truke etortzea proposatzen zaie gonbidatuei, bideratzen diren ekimenak, hitzaldia izan edo dena delakoa izan, doakoak izan daitezzen. Esan gabe doa, taldean antolaketa lanetan ari direnek ez dute fitsik kobratzen. Borondatezko ekarpenak, nolana, ongi etorriak dira, webgunean ikus daitekeenez.

Abiatu orduko hartutako beste erabaki bat: taldeak ez du bozeramailerik izango, eta komunikazioa euskara hutsez egingo da beti.


Katu bakartiak, taldean ikusgarriago

Ziurtasun batek ere akuilatu zituen ekimen honetara bildutakoak: itxurak itxura, Baionan badirela euskaldunak; festarako besterik ez elkartzeko ohiturak arrunt bestelako sentsazioa sortzen badu ere, uste baino euskaldun gehiago direla Lapurdiko hiriburuan. Hain zuzen horrexegatik pentsatu zuten beren eskutik helduko zen eskaintzak aste barruan eta modu iraunkorrean eginga behar zuela izan. Gaur gaurkoz, hilean behin luzatzen dute gonbitea, azken ostegunean beti, jendearen ohituretan eta gogoan sar dadin. Tokiari dagokionez, hiria apurka haienganatzea dute asmoa, eta bilgunea aldatu egiten dute aldiko, elkarte leku bati lotua izan ez dadin, identifikazioa Baiona osora hedatu dadin. Orain arte, gaueskola eta unibertsitateko aretoa ez ezik, beste elkarteetako egoitzak ere baliatu dituzte. Besteengana joz, besteak ere inplikatzeko direlako.

**Xumetik hasia erabaki zuten.
Taldea egonkortzen den
heinean ikusiko da bilakaera
nondiko norakoa duen**

Ez daramate erritmo makala. Oraintsu arte astelehenero bildu izan dira, hamar bat lagun guztira. Maiztasun horri esker, elkar ezagutu, ideiak atera, zenbait ildo finkatu, elkarte sortzeko agiriak eta gainerakoak prestatu, diru-laguntzetarako deialdietan presentatu, diru-iturriak atzeman eta urteko plangintza aitzinatu dute.

Bost ekitaldi antolatu dituzte lerrook idatzi artean. Azkena, *Jon Mirandez gaualdia* deiturikoa, urtarrilaren 14an izan zen Hor Konpon elkartearen egoitzan. Itxaro Bordak *Haur besoetakoa* izan zuen hizpide. Luzien Etchezaharretak *Igela* literatur aldizkariaren aipamena egin zuen, Ander Iturriotzek Miranderaren pentsamendua aztertu zuen eta Pantxix Bidartek zenbait poema musikatu eskaini zituen.



EleKATU


**Katu erratua da euskalduna
Baionako karriketean
nun eleka, nun elika, bila dabila
karrikaz karrika
beti kurri
noiztenka harrapatuz
bere gogo bihotzen hazkurri
Elikatuz elekatu eta elekatuz elikatu
gabiltza gu ere zenbait katu
euskal-katu erratu goseari
eman nahiz artetan afari**

TXO

Belaunaldi guztietako jendea bildu zaie ekitaldietan. Ez denetan jende bera, gaiaren araberrako publikoa baizik. “Kontent gara horregatik –aipatu ziguten lau kideek aho batez –. Gaiagatik heldu da jendea, ez da militantzia etorri edo euskaraz delako. Helburu eta amets genuke horrela jarraitzea. Nork daki, beharbada urte batzuetara astero-koa bilakatzen da ekimena, eta publikoa helduko da antolatutakoa maite duelako, eta ez euskaraz izaki kaka ere egingen dut. Naturaltasunez eginiko hautua izan dadila”.

Sinboloa ere badute, goiko irudian ikus daitekeenez. Elkarteari jarritako izanaz jolasean aritzearen ondortik heldu zen, esatearen eta esatearen ondorioz: eleKATU, eliKATU... ■





Haur literatura

Marikanta eta inurriak
Mariasun Landa

Ilustrazioak: Jokin Mitxelena. Erein, 2012

Lan egin eta dibertitu

URTE BATZUETAKO isilunearen ostean Mariasun Landak bi lan argitaratu ditu haur eta gazteentzat 2012ko hondarrean: *Maitagarria eta desioa* (Elkar) errealismo fantastiko korrontean koka daitekeen nobela eta *Marikanta eta inurriak* ipuina (Erein). Azken ipuin honetan, izenburutik beretik nabari den bezala, Txixarra eta inurriak alegia ezaguna dugu hipotestua, baina oraingoan idazleak alegiaren bestelako interpretazio eta bestelako kontakizuna eskaintzen dizkigu.

Txixarra, denok dakigun bezala, ez da inurria bezain langilea eta gero komeriak izaten ditu negua igarotzeko. Horixe dugu alegiaren ikaskizuna, geroa prestatzeko lan egin behar dela... baina Marikanta txixarrak lan egin baino, nahiago du kantatu, eta inurrii proposamen zehatza egiten die negua igaro ahal izateko inurritegi barruan, bertako inurriek kantuan erakustea Inurrientzako Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan parte har dezaten. Eta horrela kantuan igaro zuten negua inurriek. “Marikantak lan asko egin zuen baina are gehiago dibertitu. Animoa eta adorea ematen zion inurri taldeari inongo etsipen apurrik azaldu gabe. Eutsi goiari! Behin eta berriz. Azkenean, espero zitekeena baina pazientzia eta ardura handiagoko zomorrotxo zela erakutsi zuen.” Baina udaberria zetorrela sentitzean “arrastorik utzi gabe desagertu zen txixarra inurritegitik”. Marikantak “negualdi bereziki atsegin eta erosoa

izan zuen. Babeslekua eta janaria izateaz gain, bere autoestimua handitu egin zen abeslari eta talde dinamizatzaile bezala. Gainera, artez bete zuela inurri triste eta aspergarri batzuen bizitza”. Irakurleak, baina, hasieratik suma dezakeen bezala Marikantaren asmoak ez dira guztiz zuzenak izan eta hori, argi eta garbi ikus daiteke Leonor sorgin-orratzarekin duen elkarriketan:

–*Ez al dizu lotsarik ematen langile gaixo horiek engainatu izanak? –errieta egin zion Leonor sorgin-orratzak.*

–*Lotsa? Zer esan nabi du horrek?*

Horrelakoxeak dira txixarrak. Berezkoa dute.

Baina engainatuak izanda ere, inurriek kanten alaitasunarekin egiten dute lan harrezkero. Izan ere, alegien ikaskizunetik ihesi, Landak bestelako ikaskizuna eskaintzen digu ipuin labur honetan, artearen balioarena, lagun giroan ondo bizitzearen garrantziarena. Ondo pasatuz hobeto bizi garelako alegia.

Ipuina sinplea da, azkar irakurtzen dena, eta Jokin Mitxelena irudiek ederki islatzen eta edertzen dute narrazioa. Kontakizuna lineala da, hasieran dagoen aurkezpena kenduta, eta nahiko erraz irudika dezakegu inurritegiko bizimoduak bai eta hurrengo urteetakoa ere. ■

**Xabier
Etxaniz Erle**



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com



Jarraitzaileentzat opari bikaina

BADIRA EUSKAL MUSIKAREN HISTORIAN erroturik geratu diren abestiak, hain gazte ez garenon memoria iltzaturik dauden doinuak, urteak pasa arren oroimenean bereziki gorde ditugunak.

Gozategi taldearen abesti askok utzi dute gugan arrasto hori, eta horietako hamahiru entzuteko aukera eman zaigu *All Stars 1992-2012* disko berri honetan. Hogei urteko ibilbidean egindako kanturik esanguratsuenak, taldearen historia markatu dutenak nolabait, eta, batez ere, taldearen espiritua jasozten duten abestiak birgrabatu dituzte Mikel Irazokiren zuzendaritzapean. Dudarik gabe, taldearen jarraitzaile izan direnentzat opari bikaina.

Trikitiaren berrikuspenari esker ezagutu zuen ospea taldeak. 80etako hamarkadaren hasieran trikitiak mugak zituen, bigarren mailakoa kontsideratzen zen, baseritarren edo zaharren musikatzat hartzen zuten askok. Urte batzuk geroago, errormerietatik zetozen taldeek –Tapia eta Leturia, Maixa eta Itziar, Gozategi...– ukitu bereziak eman zizkionten ordura arteko estiloari, batez ere bateriaren edota baxuaren laguntzaz, eta ohiko mugak apurtzea lortu zuten. Hala, entzule berriengana iristeko bidea zabaldu zen.

90etako hamarkadan Euskal Herrian eztanda egin zuen triki-pop-rock estilo honen eragile nagusienetakoa da Gozategi taldea. Arrakasta itzela izan zuen Manolo Escobar kantari espainiarraren abesti batean oinarritutako *Nor-Nori-Nork* izenekoak, sekulako oihartzuna izan baitzuen. Hala ere, Gozategiren unerik gorena *Nirekin* kantuarekin heldu zen. Jon Maia bertsolariak bizkaieraz idatzitako *Emostaxu muxutxue*... leloa ahoz aho ibili zen eta 1996ko udako kanta izateaz gain, ordura arte trikitia entzuten ez zen tokietara iristea lortu zen, eta zen-

All Stars 1992-2012
Gozategi
Elkar, 2012



bait irratitan zeuden mugak gainditzea, hala nola, Los 40 Principales gisako irratietakoa.

Gozategi taldeak, herrietako jaiak girotzeko aproposak ziren kantu arin eta dantzagarriak eskaintzen zituen eta plazak gainezka izaten zituen, zuzenekoen freskotasanaz disfrutatzen baitzuten zaletu eta jarraitzaile sutsu askok.

Bost urte geroago garai haietako sukarraldia jaitzen hasi zen eta Gozategi taldeak ere nabaritu zuen, bai diskoen salmentan, baita emanaldi kopuruan ere.


20 urteko ibilbidea, sei disko kalean, eta chunka emanaldiren ondoren, oraindik gazte eta nerabeak erakartzen jarraitzen dute. Taldearen esanetan, pozgarria da oso ondorengo belaunaldiek ere beren abestiak ezagutzea eta kantatzea, eta are pozgarriago betiko zaleak haien alboan, jende artean jarraitzen dutela ikustea.

Bi hamarka eta gero, trikitilari belaunaldi baten ordezkari garrantzitsuenetakoa izan den taldeak plazaz plaza jarraitzen du, emanaldi bakoitzean ahalik eta zukurik ederrena ateratzeko desioari eutsiz, bizipen horiei esker musikari izateak merzei duela zinez sinesten baitute. ■

Olatz Korta



Gurutzegrama



ASIER SARASUA-CC BY SA

Sudokuak

Erraza

			4	3	7		
3	7	1		6			2
	6	2	5			1	9
				5			1
2			9				3
9		3					
6	7			2	1	4	
8			5		9	1	6
		1	6	3			

Zaila

		1		6	9		7
2							3
	6		4				
	1						6
		9		7		1	
	5						8
				8			2
3							1
	7		1	3		4	

Ezker-eskuin:

1. Goibel, triste. Mesprezagarri, duintasunik gabeko.
2. Izugarri handi. Magnesioaren sinboloa.
3. Eginkizun, behar. Era, modua.
4. Geziak jaurtitzeko armak. Zaldiei geldí daitezzen esaten zaiena.
5. Merkurioaren sinboloa. Frantziako departamendu baten buru dagoen funtzionario. Pluralean, atearen erroak.
6. Joera, jaidura. Jariarazi.
7. Elur-erauntsi larri. Halaber.
8. Arrantza egiteko metalezko tresna. Greziar zibilizazioa eta kultura hartu.

Goitik behera:

1. Era berebean (bi hitz).
2. Lurraren satellite naturala.
3. Tinko, irmo. Hihaur.
4. Samarioaren sinboloa. Upa, barrika.
5. Maltzurkeria, azpikeria.
6. Zementuzko pieza handi. Rhesus faktorea.
7. Arreske. Berehala, laster.
8. Gasolioa.
9. Amets egin.
10. Argazkiko udalerría. Pirataren edari.
11. Landare aledun.
12. ... gainetik, ororen gainean.
13. Zelaia, toki laua.
14. Norentzat atzizkia.
15. Fruitu, emaitza.

Kike Amonarrizen umorea
Artur Masen txakurra



ARGIAK jakin duenez, Artur Mas, Kataluniako Generalitateko presidentea, bilera pribatu bat ari da prestatzen Bartzelonako Tuset Kaleko bere etxean Espainiako presidente Mariano Rajoyekin.

Heldu zaigun informazioaren arabera, Masen txakurra zaintzen duen pertsonak albaitaritzazentro batera eraman zuen txakurra, isatsa moztu ziezaioten.

Bertako albaitari arduradunak, harrituta, hauxe galdetu omen zion:

– Baina zer dela eta moztu nahi diozue isatsa txakur gaixoari?



Eta zaintzaileak erantzun:

– Laster Mariano Rajoy etorriko omen da etxera eta presidentek esan digu, ez duela nahi Rajoyk pentsa dezan etxeko inork ongietorria ematen dionik!

Soluzioak

5	2	1	6	3	4	9	8	7
8	4	3	5	7	9	1	2	6
6	7	9	8	2	1	4	3	5
2	1	4	7	6	8	5	3	9
7	3	8	4	6	5	2	9	1
3	6	7	1	8	6	5	4	2
4	8	6	2	5	7	3	1	9
1	5	2	9	4	3	7	6	8

Erraza

9	7	2	1	3	6	4	5	8
3	8	6	2	5	4	7	9	1
1	4	5	7	9	8	3	2	6
6	5	3	9	4	1	2	8	7
8	2	9	6	7	5	1	3	4
7	1	4	3	8	2	9	6	5
5	6	7	4	2	3	8	1	9
2	9	8	5	1	7	6	4	3
4	3	1	8	6	9	5	7	2

Zaila

Ezker-eskuin: 1. Fites, Bliau. 2. Almalag, Mj. 3. Lan, Moidca. 4. Arkunak, Iso. 5. Hfg, Preter. 6. Ahber, Isurazti. 7. Elurtes, Orobat. 8. Amna, Helentzatu.

Goitik behera: 1. Hala-hala. 2. Ilaag. 3. Tink, Hen. 4. Sm, Lupa. 5. Amarna. 6. Blok, Rh. 7. Iel, Fite. 8. Diesel. 9. Amestu. 10. Uga, Rom. 11. Gan. 12. Oroz. 13. Naba. 14. Tzac. 15. Zitu.



Ez da kasualitatea

BOST URTE BADIRA Mutrikuko berdintasun teknikariak martxoaren zortziko bueltarako emanaldi berezi bat eskatu zuela. Ariko ziren bertsolari eta gai-jartzaileek, emailez perfilatu zuten saioa: Nola eraman taulara generoa gora eta generoa behera partekatu izan zituzten pentsamenduak? Nolako gaiak, nolako aretoa, nolako posturak, nola giro-tua behar zuen? Emailezko iritzi trukean bota zuen gai-jartzaile arikuko zenak “(saio arruntetan) ezer ez da kasualitatea”, eta horixe bihurtu zen emanaldiaren titulu.

Geroztik horrelako hainbat egin dira, titulu beraren pean. Hurrengo martxoaren 22an harrapatuko duzu, Ezkio-Itsason. Hara joanda aurki dezakezuna hauxe da:

● **Partaidetza anitza.** Emanaldien atzean ez dago talde finkorik, inork ez du bere copyright-ik. Parte hartu izan duten bertsolari horiek denek agertu dute generoaz (eta beraz, direnaz eta jendeak espero zuenaz) kezka eta esperimatzeko gogoia. Normaltasuna astintzeko, ohikoa den eran gizon eta emakumeak aritzen dira kantari, baina ezohiko proportziotan: askotan mutila bakarra izaten da, “saioko gizona”. Umorerako joko handia ematen du, eta bertsotan eguneroko ematen diren hainbat egoera bistaraten ditu: bera da gehiengoaren tonura egokitu behar dena, bera da gizon denen

ordezkari, berak bakarrik egin behar gizonkeriei buruzko adar-jotzei aurre...

● **Giro intimoa.** Kandela argiak ezaugarri bihurtu zaizkio emanaldia-ri. Entzule ugari bildu arren, gertutasuna bilatzen da: bertsolariek publikotik oso gertu eta batzutan aulki artetik kantatzen dute, konfiantza bilatzen da bertsolariek kortseak askatzeko aukera izan dezaten.

● **Erronka heavya.** Poz-pozik joan eta oholtzatik zintzilikatzeko gogoz itzuli zenak konta dezake: horrelako emanaldi batean aritzeko emozionalki indartsu egon behar du, edo bestela bertsotan fuerte, desorekei probetxu ateratzeko. Eskatzen du izaerei ziri-sartzea, norbere buruari eta ondokoei errepasoa ematea... eta behin bertso-kabaretean aritu ziren haiek bezala, egoeraren arabera moldeak hausteko gai direnak bihurtzen dira emanaldiko erregin. Gaiak oso baitira landuak, baina bertsolarien esku geratzen da uneoro gaiak lantzeko ohiko bideak urratzea: kantatzeko lekuak eta posturak hautatuz, gaiak aipatu ez dituen bertsolariak jokoan sartuz...

● **Musikaz “lagunduta”.** Beste galdera bat litzateke bertsolariek noraino laguntzen dieten musikariei. Herriko musikariak lotu izan dituzte antolatzaileek, elkarlana bultzaz. Emanaldia baino pare bat ordu lehenago elkartuko dira denak

entseatzeko, eta musikariek prestatutako doinuetan trebatuko dira bertsolariak. Horri esker hainbat kantu bertsotara ekarri dira, eta doinuen aniztasuna segurtatuta dago.

● **Gai-jartzaileak ere jolasaren parte dira.** Saio bakoitzari forma, norabide edo zentzu bat eman diote. Batzutan esketx bidez jarri dituzte egoerak, bestetan denok daramagun motxilatik gauzak ateratzea izan da saioaren helburua, bada saioaren ostein bertsolariei buruzko konklusioak egin dituenik...

● **Oreka.** Genero gaietan inplikaturako antolatzaile bat egon ohi da saioen atzean (berdintasun teknikariak, militanteak...), gaiaren inguruan ari diren bertsolariak biltzen dira, parte hartzeko prest diren herriko musikariak elkartzen dira, gai-jartzaileek egin nahi dutena frogatzeko aukera baliatzen dute... Emaitza: bakoitzak bere lanketa egiten du, eta elkarrekin egunean bertan bi orduko entsegua eginda, gustuz prestatutako emanaldi espontaneo segurtatuta dago. Batekora irekia baina bakoitzak bere eremutik zaindua. Arrasaterako Ampi marrazkilariak egindako kartela (irudian) horren adibide. ■



**Estitxu
Eizagirre Kerejeta**

Nola lo egin, hobeto eta gehiago bizitzeko

AZTERKETA UGARIK frogatu duten bezala, insomnioak kardiopatiak izateko arriskua gehitzen du, diabetesa eta obesitatea errazten ditu... Baina kontua ez da lo gutxi egitea bakarrik. Washingtoneko Medikuntza Eskolako (AEB) ikerketa batek frogatu duenez, kalitate eskaseko loak oroimena hondatu eta Alzheimerra izateko arriskua gehitu dezake.

Atsedeen biziberritzailea

Oheratzerakoan arazorik ez izateak ez du ezinbestean esan nahi ondo lo egiten duzunik. Hona hemen kon-tuan hartu beharreko gauza batzuk:

- **Gauetz hainbat aldiz esnatzea.** Loaren zikloak hainbat fase dauka, eta behin eta berriz eteten bada, litekeena da loaldiaren faserik sakonetaraino ez iristea. Ez da ahaztu behar fase horiek direla gure gorputza osatzeko garrantzitsuenak.

- **Neke sentazioarekin jaikitzea.** Neke hori justifikatuko duen arrazoirik ez badago (fibromialgia, tiroideko arazoak...), eta behar adina ordu –egunero zazpi edo zortzi– lo egiten baduzu, zure atsedena biziberritzailea ez den seinale.

Gaueko etsaiak

- **Esnerazten duten botikak.** Tiroideko arazoetarako erabiltzen direnek, bronkio-zabaltzaileek eta bihotzerako sendagai batzuek loaldia asalda dezakete. Diuretikoek esnaraz zaitzaketen gaueko kalen-break eragiten dituzte, Kanadan



WWW.DROZFEANS.COM

oraintsu egindako ikerketa baten arabera. Kontsulta iezaiozu zure medikuari, zalantza bat izanez gero.

- **Jadanik sumatzen ez dituzun zarata-hotsak.** Agian ohitu egin zara inguruko kutsadura akustikora, eta zarata handia izan arren, lokartzen zara eta ez zaizu iruditzen horrek eragiten dizunik. Hala ere, zarata horrek azaleko loaldi batera eramango zaituzten mikro-esnatzeak sortzen ditu zure garunean, eta horrek ez dizu behar bezala atsedeen hartzen utziko.

- **Oheratu aurretik mugikorra erabiltzea.** Egunaren hondarreen gailu teknologikoak erabiltzeak loaldia zaildu egiten du, baita okerrago ere. Suediako Karolinska Institutuan egin duten ikerketa baten arabera, gailu horiek emititzen dituzten erradiazioek loaldiaren fase biziberritzaileetan sartzea

eragotzi eta fase sakonetan denbora gutxiago pasatzea eragiten dute.

- **Alkoholarekin afaltzea.** Itxuraz eragin “lasaigarria” duen arren, edan eta lau ordura –lo zaudela, beraz– alkoholak loaldiko ete-naldiak eragin eta apneak erraztu eta larriagotu ditzake.

Siesta txar batek atsedinari kalte egiten dio

Arratsaldean siestatxoa egiteak loezina saihesten du, baina loaldia okerrago dezake zenbait kasutan. Hogei minututik gorakoa bada, erritmo biologikoa asaldatu eta gaueko loaldia ere aldrebestu egingo da. Siesta luzeek –30 minutu edo hortik gorakoek– suminkortasuna eta deskantsatu ez izanaren sentazioa gehitzen dute; gainera, batzuetan pazienteak buruko minez esnatuko da. ■



Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Hausterrea

INTSEKTUAK GARBITZEKO xaboa oso ona da. Garbitu, jo eta garbitu, akabatu! Intsektuen ezaugarri berezietakoa beren azala da. Azala dute egitura, eskeleto. Azaletik arnasa hartzen dute. Azala da babesa. Eta kitina, argizari eta abarrek babesten dute azala bera. Horiei erasotzen die xaboiak. Erasoa eta beren lana zapuztu. Horrela garbitu dezake xaboiak intsektua.

Egokiena potasa xaboa da. Etxean egindakoa onena. Hiru edo lau kilo egurren errautsari litro bat ur nahastu, ongi irabiatu eta egun pare batez utzi. Litro bat landare-oliori errauts oreka pixka-

naka-pixkanaka erantsi eta nahasi. Krema baten trinkotasunaren antzekoa hartu behar du. Eltze batean sutan jarri eta etengabe mugituz loditu, xaboiaren tankera hartzen duen arte. Gatz pittin bat eta limoi ttantta batzuk, banakabanaka ondo nahasiz erantsi. Ontzi batean jaso eta hor duzu, zeu garbitzeko edo intsektuak garbitzeko potasa xaboa. Natural askoa. Landare-olioa beharrez animalia koipea ere ez da txarra.

Xaboa egiterakoan bezala beste makina batean ere ona da errautsa. Landare ttiki aldatu berriak edo ereindako hazietatik erretzen ari diren landarettoak

har, barraskilo eta bareen hozkadetatik babesteko errautsa zabaldu bere inguruan. Landareak handituta izanagatik har ttikien erasoak badute, azaren familiakoak adibidez, dozena erdi bat koilarakada errauts litro bete uretan ondo astinduta nahasi eta landarea ongi busti. Zurinak eta ondo zurien erasoak jasan duten landareak zuzenean errautsezatu daitezke. Baratzean, lurra prestatzen denean metro koadroko kilo bat arte lasai bota, baina ohikoa baino simaur gehiago eman beharko diozu. Lurrari edo konpostari nahastez gero, gutxi jarri, bestela haren nitrogeno guztia beretzat hartuko du eta. Errautsak potasio ugari du, gaitzei aurre egiteko lagungarria eta elikagai aparta dena. Horrez gain karea ere badu, gure lur buzintzuetan lan ederra egiten duen osagaia. Horrexegatik, lurreko elikagaiak askatuz landareei mesede ederra egiten die. Tomateak bezala, pH altuko lur basikoa atsegin duten landareei ere ederki laguntzen die. Aldatzerakoan, zuloan pittin bat eman. Urmael edo urte-girik baduzu, eta algek bertan pagotxa badute, horiek atzeratzeko era ona da errauts pixka bat eranstea.

Horretarako, noski, neguko suen errautsak eta hausterreak jaso egin behar. ■



WWW.123RF.COM



Erretzen ari diren landarettoak barraskiloen hozkadetatik babesteko ona duzu errautsa.

ZIO

● ZIENTZIA
● IRAKURLE
● ORORENTZAT



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

gure
artean
euskaraz



BIZKAIA
BIZIA


Elefanteak epaile eta borrero

NINIVE (EGUNGO IRAK), XII. MENDEA. Petachiach Ratisbonako errabinoa Mesopotamia iparraldean bidaiatzen ari zela, exekuzio berezi baten lekuko izan zen: “Niniven bada elefante bat. Handia da eta otordu bakoitzean bi gurdi lasto jaten ditu gutxi gorabehera. Sultanak norbait heriotzara kondenatzen duenean, elefanteari esaten dio: ‘Pertsona hori erruduna da’, eta elefanteak ezpainaz (sic) akusatua jaso eta hil egiten du”.

Duela 4.000 urte inguru bururatu omen zitzaizen gizakiei elefantea arma hilgarritzat erabiltzea. Erromatarrek, kartagoarrek eta mazedoniarrek noizbehinka erabili zuten metodo hori. Baina elefante asiarra afrikarra baino errazago da etxekotzen eta, horregatik, nagusiki Asian findu eta hedatu zen teknika.

Exekuzio horiek agintarien boteraren sinbolo ziren; erregea piztiarik handiena bere menpe atxikitzeko gai bazen, bizitza eta heriotza nahieran administratzeko gai ere izango zen.

Kontinentearen mendebaldean exekuzioa nagusiki elefanteak kondenatua tronpaz zanpatzean zetzan, errabino bidaiariak azaldu bezala. Baina Asiako hegomendebaldean agintariak irudimen handiagoa zuten: krimena larria ez bazen, elefanteak kondenatuaren burua edo sabelaldea zanpatzen zuten hankaz, eta herio-



XVIII. mendearen erdialdeko irarlana, elefante bidezko exekuzioa irudikatzen duena.

gisa ere erabili izan ziren: akusatua frogatu ezin zitekeen krimen baten errudunat bazuten, elefantearen aurka borrokatzea eramaten zuten. Akusatua bizirik ateraz gero, hau da, unibertso astro gutziak haren alde lerrokatzen baziren eta hiltzeko bereziki trebatutako elefantea nagiak erabat jota bazegoen, errugabetzat jotzen zuten. ■

tza berehalakoa zen; baina laidoa larritzat joz gero, hil aurretik kondenatuari oinazea eragiteko bide bihurriagoak erabiltzen zituzten.

Esaterako, elefanteari marrazak jartzen zizkioten letaginetan, eta horretarako bereziki trebatutako ugaztun handiak kondenatua pixkanaka ebakitzen zuten. Marrazarik erabiltzen ez zenean, ikuskizuna ez zen hain odoltsua, baina zigortuari tronpaz eusten zion bitartean hankaz haren hezurak txikitzeko gai zen elefantea. Metodo horrekin pakidermoak kondenatuaren gorputz atalak erauzi eta ikusleen odol gosea ase zezakeen. Indian beste teknika bat zuten gogoko: kriminala elefantearen atzeko hanketara lotzen zuten, eta animaliak herrestan eramaten zuten. Kondenatuak nahikoa sufritu zuela erabaki ondoren, elefanteari atzerantz ibiltzeko agintzen zioten, eta kito.

Baina elefanteak ez ziren beti borrero hutsak, eta ordalia



Arrastoak

200 urte *Harrotasuna eta aurrejuzkuak* argitaratu zutela



200 URTE bete dira *Harrotasuna eta aurrejuzkuak* nobela ezaguna lehenengoz argitaratu zenetik, eta urte batzuk gehiago Jane Austenek (irudian) idatzi zuenetik. 1797an amaitu zuen Austenek nobelaren lehen bertsioa, 21 urte zituela. Idazlearen aitak editore bati eskaini zion lana, baina hark uko egin zion argitaratzeari. 1813an,

nobela berrikusi eta izenburua aldatu ondoren, Thomas Egerton editoreak erosi zituen eskubideak 110 liberaren truke, Austenek 150 eskatu arren. Lehen edizio hartan ez zen egilearen izenik agertu, ezta Austen hil artean ateratako gainerako edizioetan ere. 200 urtetan nobelaren hogeit hamar milioi kopia saldu dira. ■

IRATXE LOPEZ DE ABERASTURI

«Herri honi benetako argazkia egingo dio Udalbiltzak»

Gasteizen jaioa, 1974an. Turismo ikasketak egin zituen Deustuko Unibertsitatean. EA alderdiko kide da, eta Arabako Batzar Nagusietan batzarkide izan zen 2003tik 2007ra. Egun Gasteizko Udalean zinegotzi dabil Bilduren izenean. Udalbiltza berregituratzeko talde eragileko bozeramaile da. Martxoaren 2ko batzar eratzailerak antolatzen dabil orain.

| URKO APAOLAZA AVILA |

Argazkiak: Josu Chávarri

2012ko martxoaren 31n aurkeztu zenuten Udalbiltza berregiteko nahia, zer sukalde lan egin duzue aurretik?

Egoera politiko berriak gauza asko ekarri ditu eta horietako bat da Udalbiltza. Zain zegoen kontua zen eta orain errazagoa da lanean hastea. Alderdien arteko sukalde lan normala izan da, beste gai askorekin egiten den moduan. Azkenean, ez da bakarrik Udalbiltza, aukera berriak zabaldu dira, esaterako Bildu gisako koalizio bat osatzeko.

Hautetsien iritzia biltzen jardun duzue orain arte.

Aste bakarrean ehun erantzun baino gehiago jaso genituen. Batzuk oso zuzenak izan dira, baina beste batzuek ekarpen sakonak egin dituzte. Horren gainean balorazioa egin beharko dugu orain.

Eta zer sumatu duzue orokorrean erantzun horietan?

Zehatz-mehatz ezin dut askorik aurreratu, ez da galdetegi erraza aztertzeko. Dena den, gauza batzuk nahiko argi ikusten dira, esaterako elkarlanerako nahia, hori behin eta berriz azaldu da hautetsien erantzuetan.

Zenbat zinegotzik eman dute atxiki-mendua?

Azkeneko datuen arabera 1.206 lagunek eman diote babesia Udalbiltzari.



“Hamairu urte hauetan Udalbiltzaren bi espresioek egindako gauza on eta txarretatik ikasi behar dugu”.



“Udalbidek 2012ko Aberri Egunean kaleratutako oharrean zioen hasierako printzipioek balio dutela egungo egoera politikorako. Beraz, ez dugu uste arazorik egon daitekeenik”.

tzari, zinegotzi eta alkateen artean. Zenbaki borobilak dira, areago alkateen atxikimenaren kasuan, kopuru polita bildu dugu. Baina atea ez daude itxita, hemendik gutxira askoz gehiago izan gaitezke.

Udalbiltza 1999an sortu zen, baina laster barruko batasun hori hautsi egin zen eta bi sentsibilitate sortu ziren, tartean ETA jarduera armatura itzuli zen... Zer irakaspen atera daiteke iragan horretatik?

Deia egin genuenean garbi esan genuen: 13 urte hauetan Udalbiltzaren bi espresioek egindako gauza on eta txarretatik ikasi behar dugu. Gauza asko gertatu dira eta horiek kontuan hartu behar ditugu derri gorrez. Momentu hartan zailtasunak izan ziren, baina egoera asko aldatu da eta orain ez dago inolako arrazoirik bananduta egoteko.

1999an Euskalduna Jauregian ezarritako printzipio berak aldarrikatu dituzue. Baina zein lirareke Udalbiltzaren helburu zehatzak?

Helburuak berak dira. Euskal Herria desegituraturik dago, bai administrazioari eta baita lurralde-tasunari dagokionez ere. Bestalde, oraingo marko juridikoak ez die erantzuten euskal herritarren beharrei, ez daukagu estatu propiorik eta nazio borondateak ez du erantzunik. Udalbiltzak egoera horri buelta

emateko tresna izan behar du, horretan lagundu behar du.

Sektoreen artean bilerak egin dituzue, zertarako?

Gaur egun Euskal Herria datutan nola dagoen ez dakigu. Ekonomia- ren, enpleguaren edo etxebizitzaren inguruan EAeko datuak, Nafarroakoak eta Akitaniakoak –Iparraldekoak ere ez baititugu– banatuta daude. Gipuzkoak Errioxarekin has dezake lan ildo bat, eta aldiz Iparraldearekin ez du egiten, errazago litzatekeen arren. Baina daturik ez dugunez, ezin jakin. Udalbiltzak horretan ere lagundu behar du, datuak eskaini eta beharrak non dauden jakiteko.

“Bilduk bazuen aukera prozesu hau guztia bakarrik hasteko, zinegotzi kopuru ederra dauka, baina nahiago izan dugu gauzak beste modu batera egin”

Zinegotzien %18ak eman dio babesera oraingo. Ez al du hanka motz gertatzeko arriskurik?

1999an EAjko zinegotzi guztiak batera sartu ziren eta orain ez da hori gertatu, baina uste dugu hau ez dela definitiboa, Udalbiltzak badau-

ka abertzale ororentzat konexio berezi bat. 2011ko hauteskunde ondoen Bilduk aukera zuen prozesu hau guztia bakarrik hasteko, zinegotzi kopuru ederra dauka-eta. Baina gauzak beste modu batera egin nahi ditugu, aniztasunak ematen digu indarra eta lanean jarraitu behar dugu.

Zein izan da EAjren ingurutik jaso duzuen erantzuna Udalbiltzan ez parte hartzeko?

Herri honetan beti dago hauteskunderen bat edo horrelako zerbait, eta zaila da erabakiak hartzea. Kontak- tuak izan ditugu exekutibekin eta behin eta berriz esan dugu atea irekita ditugula.

Aurreko Udalbiltzaren proiektu sendoenetako bat “Zuberoa Garatzen” izan zen. Identitatearen aldarrikapenetik harago, zer egin dezake Udalbiltzak orain gauden egoera ekonomikoari begira?

Benetako argazkia egin behar dugu. Nazio eraikuntza bultzatzeko adar asko dago, ez da soilik hitz politiko potoloak esatea, alor guztietan eraiki daiteke: gizartean, kirolean, hain txarto pasatzen ari den lehen sektorean... Baina lehenik ikusi behar dugu argazki orokor hori zein den, horregatik jarri dugu prozesu parte hartzailea martxan. Martxoaren 2ko biltzarretik aterako den zuzendaritzak finkatuko ditu lehentasunak, hausnarketa egin ondoren.

Aukeren artean dago diru-laguntzak eta funtsak sortzea?

Lehen ere egin da halakorik. Udalbiltzaren lana herrietatik sumatu ahal izango da, hautes- siek esango dute zein diren beharrak eta arazoak, eta herri- tarrek ikusi ahal izango dute ekimen horiek eragina dutela beren herrian. Erakundearen udal izaera aprobetxatu behar dugu herritarrengandik gertu- go egoteko, guk dugu gure herria- ren berri.

EAK Udalbide barruan egin zuen ibilbidearen zati bat. 2006an esan zuen Udalbide “dirulaguntzak kudeatzeko leihatila” bihurtu zela.

Orain ez dago inolako arrazoirik bi espresio horiek egoteko. Esaterako, Jesus Mari Agirrezabala Udaltzaren Udalbideren lehendakari orde izandakoa, orain lanean ari da Udaltzaren berrantolaketan. Dena den, Udaltzaren 2012ko Aberri Egunean kaleratutako oharrean zioen, hasierako printzipioek balio dutela egungo egoera politikorako. Beraz, ez dugu uste arazorik egon daitekeenik.

Bilduk agintzen duen udaletan ez diote Eudeli kuota ordainduko. Eudel barruko tira-bira horiek eraginik izan al dute Udaltzak babes gehiago ez izateko?

Asko hitz egin da Udaltza eta Eudeli buruz, baina gauza guztiz ezberdinak dira. Ez dakit nahita piztutako polemika izan ote den edo zer gertatu den. Eudelen EAEko udal guztiak eta Nafarroako batzuk daude eta batik bat aholkularitza teknika eskaintzen du. Udaltza zazpi lurraldeetako nazio erakundea da, helburu guztiz diferentea duena. Kontua da denboran bat egin dutela Udaltzaren berrantolaketak eta Bilduk Eudeli egin dizkion kritikek.

Baina kritika horiek kalte egin diote Udaltzari?

Kalte egin badiote, ez dugu ulertzen zergatik. Gu beste gauza batez ari gara. Dena den, Bilduk ez dio kritika Eudeli berari egin, funtzionamenduaren eta izaeraren inguruan hausnarketa sakona egin behar dela esan du, eta ez dugu erantzunik jaso. Bildu da Euskal Herriko lehen indarra udal eremuan eta Eudelen zuzendaritzan ez dugu ordezkaririk, herritarrek bozkatu dutena ez dago islatua zuzendaritza horretan. Baina askoz okerrago dena, udalak larri dauden garaiotan, Eudel desagertuta dago.

Katalunian udalek protagonismo berezia izan dute, erreferendumak antolatu dituzte eta euren burua "udalerrri katalan independente" izendatu. Zer hausnarketa eragiten dizue horrek?

Udalen lana ezinbestekoa da, horregatik du Udaltzak halako garran-

«Aurrekontu hauek ez dira herritarrei begira egin»

Gasteizko Udalean PP eta EAJ aurrekontuen inguruan akordiora iritsi izanak zeresana eman du azken asteotan. Bi alderdien arteko harreman onaren adibide garbitzat dute askok. Iratxe Lopez de Aberasturiren ustez testuinguru zabalagoan ulertu behar da akordio hori.

“Erabakia ez da hemen hartu. Abenduan oso une txarrak bizi izan zituzten, Javier Maroto alkatearen eta Gorka Urtearen EAJko bozera-mailearen arteko eraso pertsonalak eta guzti. Orain, Basagoiti eta Ortuzarren deia jaso dute, eta Kutzabanken hasi zena —gero Bizkaiako Aldundian segida izan duena—, hona iritsi zaigu. Horrek esan nahi du ez direla Gasteizko herritarrei begira egindako aurrekontuak izango. Nola edo hala sinatu behar zuten.

PP urte osoan esaten aritu da dirurik ez zegoela, eta akordiora iritsi ostean hara zer esan duen Ogasuneko zinegotziak, hitzez hitz: ‘Akordioa dagoenean, diru gehiago dago’. Orain geratzen zaiguna da jakitea aurrekontu zehatza zein den, oraindik medioetan irten diren gauza batzuk baino ez baitakizkigu.

Egia esanda, PPK bultzatu dituen proiektu guztiak hor daude, ez dute ezer kendu, horiek mantentzeko dirua egongo al da? Orain arte murrizketa izugarriak izan dira, enplegua suntsitu dute, kontratuplean zeuden ehun programa baino gehiago desagertarazi dituzte, gizarte gaien ingurukoak, udal bandarenak...”

tzia. Katalunian gertatutakoaz asko ikasi dezakegu, azken batean udalen bidez gauza mordoa egin dezakegu, eta ziur halako ekimen ugari irtingo direla. Proiektu bat aurrera atera nahi duzunean, ideia guztiak ongi etorriak izaten dira, eta beste tokietan gertatzen ari denari erreparatu behar diogu sinergia horiek aprobetxatzeko.

“Asko hitz egin da Udaltza eta Eudeli buruz, baina gauza erabat ezberdinak dira. Ez dakit nahita piztutako polemika izan ote den edo zer gertatu den”

Herri honetan badaude soberanistak ez diren herritarrak, zinegotziak eta udalak. Udaltzak zer eskaini diezaieke?

Udaltza Euskal Herria aintzat hartzen dugunon bilgunea da. Hori garbi daukagu eta helburuak hor daude. Ezin ditugu zalantzan jarri.

Tira, PPko zinegotziak ez dut uste inoiz Udaltzara etorriko direnik. Baina Euskal Herria eraikitzeke modu asko daude, ez bakarrik identitate edo burujabetza kontuekin. Zinegotzi batek ikusten badu bere herria indartuta atera litekeela, errazago izango zaio Udaltzaren parte hartzea. Noski, bakoitzak bere tokia izango du. Guk garbi duguna da edonorentzat irekita dagoen erakundea dela, ez diogu inori betorik jarriko, Euskaldunako bost printzipioak argi izanda, beti ere.

Izan duzue kontakturik alderdi sozialistako ordezkariekin?

Talde eragileak ez. Hori alderdi bakoitzaren lana da, exekutibean bidez harreman horiek izatea.

Martxoaren 2ko batzarraren ondoren, zein izango da agenda?

Batzar horretan zuzendaritza berria hautatuko dugu eta bera izango da proiektu espezifikoei izenak eta epeak jarriko dizkiena. ■



ANGEL CALVO, FILIPINETAN APAIZ

«Herritarrek bizimodu duina izan arte, ez dago bakerik»

Angel Calvo (Valladolid, Espainia) misiolaria eta apaiza da Filipinetan. 40 urte iraun duen gatazkaren testigu izan da. Musulmanen eta Gobernuaren bake akordio definitiboa bidean da. Benetako bakea ordea, ezberdintasun sozialak gainditutakoan lortuko dela dio.

| AGURTZANE BELAUNZARAN |

Argazkia: Pedram Yazdani

Filipinak, Asiako herrialde katolikoena. Ezin ahaztu ordea espainiarrek Filipinak konkistatu baino mende bat lehenago iritsi zirela musulmanak hona. XV. mendean hegoaldeko irlak (Mindanao, Basilan, Jolo eta Sulu) sultanerriek kontrolatzen zituzten. Azken urteetan gatazka puri-purian egon da irla hauetan.

Gatazka hau ulertzeko noraino egin behar dugu atzera?

Prozesu historikoa izan da, lehenik espainiarren kolonizazioa eta Ameriketako Estatu Batuena gero. Amerikarrek lurralde antolaketa politika desegokiak egin zituzten, lurrak kolonoei eta atzerriko enpresei salduz. Gerora Filipinetako gobernuek politika honekin jarraitu zuten. Musulmanak historikoki marjinatuak sentitu dira beraienak ziren lurretan, diskriminazio horrek pobrezia eraman ditu eta armak hartzea izan da erantzuna.

Azken 40 urteak bereziki gogorrak izan dira.

1970ean Mairuen Askapenerako Frente Nazionala (MAFN) sortu zen Mindanao hegoaldean, musulmanak gehiengo diren tokian. 1972an Ferdinand Marcosen gobernuak lege martziala jarri zuen martxan, diktadura erabili zuen musulmanen aurka eta hauek armekin erantzun zuten. Lau urte iraun zuen gerra zibila piztu zen, gatazka gaurdaino iraun badu ere.



Angel Calvok Mindanaoko Bakearen Astea antolatu ohi du. Atzealdean, bertako gazteek ospakizun horren harira margotutako murala.

Eta zu Basilan irlara iritsi berria.

1972an iritsi nintzen Espainiako Gaztela lehorretik eta hura paradisu zen niretzako. Hango errekurtsio naturalekin aho zabalik geratu nintzen, petrolio, gasa, mineralak eta lur oso emankorra dituen irla da Basilan.

Egoera zeharo aldrebestu zen ordea paradisu.

Gerra piztu zen goizetik gauera eta gu ez geunden prestatuak egoera berrirako. Hilketak, bahiketak, gizarte zibila zatitua, gerra desplazatuak... Lanean jarraitu genuen hala ere, Claret eskolako zuzendari

izan nintzen, gau eskolak martxan jarri nituen, gerra desplazatuekin lanean hasi ginen. Egoera jasangaitza bihurtu zen arte. Adiskideak bahitu eta hil zizkidaten, Basilan irla utzi zuen azken apaiza izan nintzen.

Film bat izan zitekeen.

Izan zitekeen, istorioak mila ditut; Marcosen gobernuak mairuen talde armatuko kide izatea egotzi zidan liderra ezagutzen nuelako. Gerora, talde komunistako kide izatea egotzi zidaten. Nik ordea, pobrezia eta injustiziak sufritzen zituztenen alde egiten nuen lan.

Tartean, sei urteko geldialdia egin zenuen.

Baina berriro itzuli nintzen Filipinetara eta egoera asko okertu zen.

Zertan?

Talde armatuak ugaldtu ziren. Askapen Islamiarrerako Fronte Mairuak (MILF), Filipinak hegoaldean estatu independentea eskatzen zuen. 1991n Abu Sayyaf talde armatua sortu zen, talde erradikalenetan erradikalena. Horrez gain, Basilanen gerrilla txiki ugari sortu ziren. Biolentzia ikaragarria zen.

Abu Sayyaf diozu. Liderra oso gertuko izan zenuen ezta?

Khadaffy Janjalani liderra nire ikasle izan zen Basilan irlan. Unibertsitate islamiar batean ikasteko aukera izan zuen eta handik ideia oso erradikalekin etorri zen. Abu Sayyafeko kide askok ere aukera bera izan zuten, batzuek Afganistanen borrokatu zuten. Bahiketak ziren dirua lortzeko modua. Hainbat ekintza egin zituzten eta hildako asko eragin. Ameriketako Estatu Batuek esku hartu zuten talde islamiar honen kontrako borrokan, Al Kaedarekin lotura zutelakoan. Azken urteetan zorionez ez dute ekintzarik egin.

Azalduko didazu gatazka hau zifrantan?

40 urteko gerra, 120.000 hildako, bi miloi gerra desplazatu, 15.000 gerrillarik armak utzi beharra eta gerra zauriak zenbatezina dira.

1996an MAFN-k bake akordioa sinatu zuen.

Akordio honen ondoren sortu zen

RAMM (Mindanao Musulmaneko Lurralde Autonomoa), Nur Misauri MAFNko liderra gobernadore izan zelarik. MILF-k inoiz ez zuen onartu Akordio hau.

“Musulmanak historikoki baztertuak izan dira euren lurrian, hortik dator gatazka”

16 urte geroago lortu dute MILF-koek Cory Aquino presidentearekin Bake Akordioa sinatzea. Zer gertatu da orain bake akordioa sinatzeko?

Denborak erakutsi du RAMM-ek ez duela funtzionatu. Sinatu berri den akordioan, *statu quo* ezin dela onartu aipatzen da. Musulmanen bizi baldintzek bere horretan jarraitzen dute, aberastasun natural handiko irlak dira haienak, baina Filipinetako lurralderik pobreenak izaten jarraitzen dute.

Zertan aldatuko da egoera?

Bangasamoro (Mairuen herria) izeneko lurraldea definitzeko erreferenduma egingo da musulmanak gehiengo diren tokietan. Akordio honetan, Estatuak eskumen gehiago emango dizkio lurralde berriari, zergak bildu eta ezartzeko, baita baliabide naturalak kudeatzeko ere.

Sharia aplikatzea eskatzen dute.

Akordioan ondo definitu beharko da *sharia* nori aplikatu eta zein neurritaraino. Ez da estatu islamiar batean bezala aplikatuko, ziur nago

hortaz, baina musulmanak ez direnen eskubideak errespetatzea ezinbestekoa izango da.

Azken bake akordioa izango al da?

Aquinoren gobernua populista da eta baiezkoan nago. Asia Hego Ekialdeko gatazkarik luzeena nozitu dugu. Bakea ordea ez da akordio bidez lortzen, bakea beste eremu batean dago.

Zein da eremu hori?

Ezberdintasun sozialak, injustizia eta pobrezia sufrizten dutenek bizimodu duina izan arte ez da bakerik izango, norbanakoaren sinesmenak kontuan hartu gabe, izan musulman edo kristau.

Elizak zer dio?

Gatazka eremu erlijiosora eramandu du beti eta ni oso kritikoa naiz horrekin. Elizak Jainkoaren egia defendatu du, agintari islamiarrek Alarena eta elkarren arteko xextrak ez du ezer konpondu.

Musulmanen eta kristauen arteko elkarbizitzan zubi lana egiten ari zara: pulpitutik elkar ulertzearen aldeko mezuak ematen dituzu, chabacanoz eta ingelesez, erlijio ezberdinetako liderrak biltzen dituen elkarteko sortzailea zara...

Nire lana gizarte zibilaren ongizateari loturik egon da. Benetako lana, bakean eta elkarbizitzan sinesten duten herritarrena da. Boterean dauden askok nire lana ez dute gustuko, hori beraie arazo da, ni oso gustura nago egiten dudanarekin. ■



NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

13

ZIALA SARE SOZIALA

AZKEN-LAUDENAK

Otsailak 16:
ZUBIRI
17,30
Gautxori jatetxea

Oskar Estanga
Ander Fuentes "Iturri"
Ainhoa Aranburu
Iban Garro
Joxema Leiza
Unai Uberetagoena




Antolatzailea:  Laguntzailea: 

Kolonbiako enberak euren hizkuntza idazten hasi dira

Kolonbiako toki askotan elkarte indigenek hartu dute euren eskolen kudeaketa. Chocón, Enbera herriko Orewa elkarteak enberera idatzi eta eskolan erakusteko bidea hasi du. Alfabetoa, hiztegia eta eskolarako materialak sortzen hasi dira.

| AMAIA UGALDE BEGOÑA |

Argazkiak: Barreña eta Mendizabalek utziak

KANPOTARRAK IZAN DIRA orain arte enberen kulturaren gainean zer edo zer idatzi dutenak. Sarritan aditu horien testuetan akatsak egoten dira, enberak eurak gezurrak esan dizkietelako ziurrenik. 2008ra arte, euren kultura babesteko asmoz, komunitateko liderrek enberera ez idazteko erabakia hartu zuten. Ez zuten ondo hartzen enberak ez zirenak euren kulturari edo hizkuntzari buruz galdezka etortzea. Ez idaztea euren kultura gordetzeko bidea izan da. Izan ere, zertara joaten dira zuriak hara? Urrea eta petrolioia ustiatzera, lurrak hartzera, osasun sistema tradizionalaren gainean galdezka... Mesfidantza edukitzea ez da harritzekoa.

Enberak Kolonbian, Panaman eta Ekuadorren bizi dira, eta gutxi gorabehera 70.000 lagun dira. Kolonbian bizi dira gehienak, Ozeano Barea aldean, iparretik hegora. Chocó Panamaren ondoan dago eta Kolonbian enbera gehien biltzen duen departamentua da.

Gobernuak hala erabakita, 2008an, Kolonbiako eskualde guztietan jarri zituzten eskolak, eta orduan Chocóko enberak eskolaren bitartez gaztelania ikasten hasi ziren. Andoni Barreña hizkuntzalariak azaldu duenez, “eurek ez daude gaztelania ikastearen aurka, baina beldurtu egin ziren eskolaren bidez gaztelania bakarrik indartzen zela, eta ez euren hizkuntza”.



Enberak ez dute haien hizkuntza idazterik nahi izan, horrek galaraziko zuelakoan.

Hasieran Chocóko elizbarrutiak eduki zuen eskolen ardura. Elizbarrutiak Orewa elkarte indigenarekin oso harreman onak zituen eta adostu zuten eskola guztietan enberera hiztun bat egon behar zela irakasle, nahiz eta titulurik ez izan. Irizpidea ahozko dena enbereraz egitea zen, baina idatzizko guztia gaztelaniaz zegoen. 2010ean Orewa elkarteak hartu zuen eskolen ardura, eta erabaki zuten euren hizkuntzan idazten hasi behar zirela. Horretarako, aholkularitza eskatu zioten EHuko Munduko Hizkuntza Ondarearen

UNESCO Katedrari, Euskal Herrian euskaragaz izandako esperimentziagatik. Mikel Mendizabal biologoak eta Andoni Barreña hizkuntzalariak jardun dute egitasmoan lanean.

Irakasleen formazioa

Enberena izan da hasierako ekimena eta komunitatea dabil helburuak finkatu eta lan egiteko modua diseinatzen. Euskaldunek han aholkulari lan soila egin dutela argi du Barreñak: “Ez dute nahi gure eskola egiterik. Amesten duten gizartea

eraikitzeko eskola egin gura dute, euren kosmobisiotik, euren kulturatik egindakoa”. Hizkuntzalariak kontatu duenez, enberek eurenganako errezelo asko izan dute: “Kostatzen zitzairen ikustea gu ere indigenak ginela, ez ginela zuri tipikoak. Esaten diegu gurea ere galtzeko zorian dagoela, geuk ere eduki dugula kosmobisioa”.

Idazketarako prozesuan hiru helburu daude: ortografia finkatzea, hiztegia osatzeko hitz-bilketa egitea eta irakasleak eskolako materiala sortzeko gaitzea. Horrez gainera, sentsibilizazio eta identitate kontuak landu dituzte formazio tailerretan.

“Askotan pasatzen da –dio Andoni Barreñak– horrelako herrietan holakoak esatea: ‘Zertarako ikasi behar dute gure hizkuntza eskolan? Etxean ikasiko dute; eskolan gaztelania’. Enberei ez diet egundo horrelakorik entzun”. Tailerretan parte hartu duten irakasleak gazteak dira, batxilergoa dutenak gehienak. Zeretik idatzizko kodea sortzen ibiltzea zirraragarria izan da eurentzako: “Dozenaka aldiz entzun dut; ‘nire hizkuntzan idazten dudan lehen hitza da””.

Sistema ortografikoa lantzen hasi ziren 2010ean, eta 12 bokal eta 20 kontsonante zehaztu zituzten. Hiztegia eratzeko orduan, arloka, eremu semantikoak lantzen jardun zuten tailerretan: giza-gorputza, senideak eta gizartea, etxea, eguraldia, lurraldea, zentzumenak, zenbakikuntza eta eragiketak... Hiztegi aberatsa da enberena, gauza asko izendatzen dituzte. Esaterako, klitorisa esateko berba bat daukate, guk berriz, kontzeptu hori zientziatik hartu dugu.



Irakasle gazteak ari dira ortografia, hiztegia eta eskolarako materiala prestatzen.

Irudi alfabetoak eta hiztegi ilustratuak egin dituzte, hiztegia eratu, eta gero umeak eskolan alfabetatzeko erabiltzeko. Hitz-bilketa Chocón hitz egiten diren hiru aldaeretan egin dute. Tailerrak kontzentrazio eskolarra dagoen herrietan egiten dituzte –eskolarra egun batzuetarako joaten dira, eta gero herrietara bueltatu–. Andoni Barreñak herrian sortutako interesa nabarmendu du: “Komunitatean egiten dena mundu guztiak ikusten du. Tailerretara hainbat ume eta nagusi gerturatu izan dira, eta eurek ere marraztu, azaldu eta ikasi dute”.

200 orduko ikastaroa 2012an

Iaz, Orewa elkarteak eta Fucla unibertsitate publikoak, UNESCO Katedraren laguntzarekin, 200 orduko Etnolinguistika Diplomatura ikastaroa diseinatu zuten. 60 irakasle hartu zuten parte, Quibdónen, Chocóko hiriburuan. Ikastaroaren helburu nagusia irakasleak material-gintzan trebatzea izan da.

Unibertsitatean egin zuten ikastaroa, eta hasieratik enberera erabiltzeko erabakia hartu zuten; lehen

aldia zen enberera unibertsitatean modu sistemati-koan erabili zena. Egindako gauzen artean, *Tachi Pede* (gure hitza) aldizkaria dago, Chocón enbereraz idatzitako lehen aldizkaria. *Thachi tua* liburuxkan, bestalde, mapak biltzen hasi dira, eskualdetakoak, ibaie-takoak, baraztetakoak...

Eta hemendik aurrera...

Eskola-umeak hasi dira enberera irakurtzen eta idazten ikasten. Barreñak baloratu duenez, irakasleek ikastaro intentsibo gehiago behar dituzte: “Euskal Herrian irakasle esperien-
tzia handia duen jendea joan behar-ko litzateke hara, gaitasun hori transmititzera”. Enberek ikastaroa hiriburuan bakarrik ez egitea eskatu dute. Arazoa da horretarako dirua eta antolaketa behar dela. Orewa elkarteak, gainera, egitasmo berri bat dauka: ikastaroa diplomatura bihurtu gura dute, unibertsitateko bi kurtsoren parekidea, Kolonbiako unibertsitate sisteman sartzeko. Chocóko unibertsitateagaz negoziatzen dabilta. Arazo bera dago, ordea; diplomatura hiriburuan egin-go litzateke, eta askok gaitz dute hara joatea: “Bi egunetako bidaia behar izaten da sarri. Horri ikastaroa bera eta aste osoa bertan egotea gehituz gero, diru asko da, izugarriko esfortzua da”.

2012ko abuztuan, Chocóko Hizkuntza Enberaren lehen biltzarra egin zuten. Aditu ugari bildu ziren, eta han izan ziren Mendizabal eta Barreña ere. Biltzarrak oihartzuna izan zuen Kolonbian. Idatzizko lehen berba horien atetik amets eta lan askoko urteak datoz enbera herriarentzat. ■



Babeslea: Hondarribiko Udala



Hondarribiko Udala



dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat ikusgai

Dagoeneko 112 dokumental eskura

Amerikanuak
 Anuken egia
 Arrhash, pozoina
 Banlieues. Pariseko errebotak
 Basque hotel
 Bidaia Intimoak
 Botilen hilerria
 Companys eta Agirre azken erbesterantz
 Debekatuta dago oroitzea
 Egunero
 Elburua Gernika
 Euskal Herria: Ezkutuko zorra
 Euskararen jatorria: Enigma europar bat
 Garrasia Saharatik
 Gudari baten egunerokoa
 Haizea eta sustraiak
 Insumisioa. 20 urte desobeditzen
 Iparraldea XXI

Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean
 Iruña-Veleiako misterioa
 Itoitz hustu arte
 Itsasoren alaba
 Langile autonomia
 Leku hutsak, hitz beteak
 Nire bizi osoa espetxean
 Nömadak Tx
 Oroitarria
 Perurena
 Pluja seca - Euri lehorra
 Sagarren denbora
 Sahara marathon
 Salda badago
 Santi Brouard. Euskal Herria Osagai. Duintasuna omen
 The Yes Men fix the world
 Tortura Euskal Herrian

...eta askoz gehiago

Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

multimedia@argia.com

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

argia.com

EGUZKI BIDEOAK *elkarlanean*



Euskalerria Irratiak oraingoan ere lizentziarik ez

EUSKALERRIA IRRATIA laugarren aldiz aurkeztu da Nafarroako Gobernuak banatzen dituen irrati baimenetara, eta orain ere emisio baimenik gabe geratu da. Iruñerako bi irratiertzako baimen banaketa zegoen. COPEk 73,05 puntu lortu ditu eta Ser kateak 72,43 puntu. Euskalerria Irratiak 72,05 puntu ditu. 1988an irrata abian jarri zenez geroztik, lizentzia lehiaketetara aurkezteaz gain auzitegira ere jo du Iruñeko irratiak, baina ez du ondorio baikorrik izan. Europako Batzordeak berak ere, behin baino gehiagotan aholkatu dio Nafarroako



Gobernuari Euskalerria Irratia emittzeko baimenik gabe zergatik dagoen aztertzea. Gobernuako Komunikazio zuzendari Edurne Eliok adierazi du egin berri duten lizentzia banaketa “gardena, xehea eta objektiboa” izan dela. Mikel Bujanda irrati zuzendariak honakoa adierazi du *Berria* egunkarian: “Proiektuan konfiantza genuen, baina bagenekien norik erabakitzen zuen”.

Gipuzkoako hainbat udalerrik kontratu publikoetan pisu handiagoa emango diote euskarari

36 UDALERRIK Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, obra eta zerbitzuetan euskara bermatzeko egitasmoa abiatu dute. Lehiaketetara aurkezten diren enpresa eta erakundeek euskara irizpideak zorrotzago bete beharko dituzte hainbat alorretan: zerbitzua zein hizkuntzatan eskaini

behar den, langileen euskara maila, kontratatuen euskara maila, hizkuntza paisaia eta abar. Zigor Etxeburua Aldundiko Euskara zuzendariak adierazi duenez, irizpideak lege bihurtzeko bidea jarraitu nahi dute, Kataluniako Generalitateak egin duen moduan.

Bahea

Itzain erabiltzaileak
zuzeu.com-en esanak:

“Dozenaka eliteko kirolari euskaldun (euskaradunak alegia) dauzkagu. Dozenaka. Kirolari horietako askok eta askok, bloga edo twitter nahiz Facebook-eko profila sortua dute, erdaraz beti. “Soberako eta sekulako ekoizpen aberatsa” daukagunez eremu guztietan euskaraz, zertarako horiek “ere” aktibatu ezta? Gu beti aukerak galdu eta galdu... noiz arte?”

Hain zaila ote da erakunde publikoetatik (izan udal, foru aldundi edo jaurlaritzak), edo ikastolen elkartetik edo euskaltegien sareetatik, edo ekimen euskaltzale pribatutik adibidez, horietako batzuegana jotzea euskara hutsezko webguneak eta bestelakoak egin ditzaten laguntza eta sustapena eskainiz?

Zakurrentzako ez, baina hain euskaldun nahi omen ditugun haur eta gazteentzako, ez litzateke oso lagungarria? Ez luke horrek lagunduko euskarari erakargarritasuna ematen? Ez litzateke hori hamaika manifestazio eta kanpaina baino eraginkorragoa izango?”

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Haurren pobrezia eta gazteen langabezia

HAURREN POBREZIA eta gazteen langabezia; azken egunotan erabili diren bi termino. Egungo krisi ekonomikoaren ondorioz bizi dugun errealitate gordina adierazteko bi espresio dira. Merkatuen (banku handiak, finantza erakundeak, inbertsio funtsak, multinazionalak...) kapitalismo basatiak sorturiko krisia da honakoa. EAEko Arartekoak egindako *Krisiaren eragina haurrengan: EAEko errealitatea* txostenaren arabera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 15 urtetik beherako 35.000 adingabe inguru pobrezia arriskuan da. Arrisku tasa %3,5etik %6,2ra igaro da lau urtetan, hau da, %77 hazi da. Zeini eragiten dio? Guraso bakarra—gehienak emakumeak—duten seme-alabei, hala nola atzerriko nazionalitateak dutenei eta 35 urtetik beherako gurasoak dituzten haurrei. Euskal Herrian 2012an 229.555 lagun zeuden lanik gabe. Kopuru horren zati handi bat gazteak dira, bi gaztetik bat lan bila dabil

baina ez du aurkitzen, eta soldata jasotzen duten gazteen %65ak behin behineko lan kontratua du. Ez dugu eskura Euskal Herri osorako datu ofizial zehatzik. Espainiako Estatuan—Hego Euskal Herria barne—gazteen langabezia tasa, 25 urtetik beherakoa, %55ekoa da.

Administrazioek euren aurrekontuetan egoera hori leuntzeko politikak onartu beharko lituzkete, eta proiektu faraonikoak ahaztu: Bizkaiko ahaldun nagusiak proposatutako Urdaibaiko bigarren Guggenheim-a, Pasaiaiko kanpo portua, edota ekonomiari eta gizarteari kalte egin diezaiokeen AHTa bera. Erabilitako diru eta inbertsio oro, gutxi izan liteke gazteen langabeziari eta haurren pobrezia aurre egiteko.

Juan Mari Arregi



Estatu Batuak zenbat eta ahulago, inperialistago

Bertako askok aipatzen duten arren Amerikako Estatu Batuen hegemonia ezberdina dela historian zehar ikusi diren beste inperioekiko, yankien inperialismoak aurretik Holandak eta Britainia Handiak ezarritakoen eredu oso antzekoa darabil. Julian Go soziologoak aurreikusi du AEBek atzerri politika gogortu egingo dutela berriro.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

AFGANISTAN ETA IRAK AHAZTU bezain laster ekingo diete AEBek gerra eta inbasio berriei. Hori ei dago idatzita AEBek bezala munduan hegemonia erabili duten ereduak: benetako indarra ematen duen nagusitasun ekonomikoa ahuldu ahala, mendean eduki nahi dituen eskualdeetan bortizkeria militarrez jokatu beste biderik ez du aurkituko. Julian Go soziologo amerikarra mintzo da horrela.

Bostongo unibertsitatean Aginte politikoa eta Gizartearen Teoria irakasten duen Julian Gok bere bosgarren liburua du *Patterns of Empire: the British and American Empires, 1688 to the Present* (Inperio ereduak: inperio britainiarra eta amerikarra, 1688tik gaur arte). Liburuko ideiak laburrean eskaini dizkio Alex Dohertyri *New Left Project* aldizkari-rako.

Goren iritzian potentzia handi batek beste ezer hobetik egin ezin duenean erabiltzen du inperialismoa, hau da, eskualde batean armada zuzenean sartu, eskualdea koloniatzat bereganatu edo okupatzea. Azken aukera taktikotzat. Badaki garestia dela *direct imperialist* jokatzea.

Estatu batek nagusitasun ekonomikoa duelarik ez dago horretara heltzeko bezain desesperatua. Goek multinazional handi batekin aldera-

tzen du. Multinazionalak nahiago dituzte merkatu libreak, badauzkatelako kapitalak eta baliabidea aurkari txikiagoak menderatzeko merkatu librean —zeinak ez baitira benetan libreak, argitzen du Gok, horregatik maite dituzte korporazioek—. Baina abantaila hori ez daukatenean, orduan konkurrentzian tranpak egiten dituzte, etekinak eta merkatuaren kuotak ziurtatzeko.

Estatu batek berdin, munduan nagusi baldin bada nahiago du *status quo*ak jarraitzea. Aldiz, estatua ahultzen hasi delarik, inperialismoak balio dio nagusigoari heltzeko. Hala egin zuen Britainia Handiak XIX. mendean eta berdin AEBek XX. ean. Gok dioenez, II. Mundu Gerratik 1970eko hamarkada artean hegemonia nabarmena eduki zuten AEBek, eta geroztik gainbehera hasitakoan ugaritu zituzten esku hartze militarrek eta inbasioak munduan zehar. Horren arabera Vietnamgo gerra litzateke araua berresten duen salbuespena.

Elkarren antzekotasun handiak aurkitu dizkie Julian Gok britainiarren eta yankien inperialismoei. Ahultzen hasitakoan eraso militarrek gehitzeko joeraz gain, bi inperialismoek egin dituzte ahaleginak eta bi ez onartzeko inperioak zirela. AEBetan denbora luzez herritarren artean baina baita akademikoen

War News zerbitzutik hartu dugun argazkian, agentziak dioenez, Shane Bordonado soldadu iparramerikarra azaltzen da 2008ko abuztuaren 4an Irakeko Al Assiriyah hiriko karrketan patruilatzen, auzoko umeak jarraika dituela. Julian Go soziologoak arrazoi ematen dio Immanuel Wallerstein filosofoari honek azaltzen duenean hegemonia bakoitzak bere burua legitimatu nahi duela balio unibertsalak eskainiz. Holandarrek bezala britainiarrek eta yankiek ere merkataritza irekia aldarrikatzen zuten. Horrez gain, holandarrek erlijio tolerantzia aipatzen zuten, eta britainiarrek zibilizazioa, *civilizing the natives*, funtsean merkataritzaren bidez lortu beharrekoa. AEBek *modernization* edo *development* (garapena) eskaintzen dizkiete atzeratutako herrialdeei. Orain Txina ari denez hegemonia bila, ikusi beharko da zein balio unibertsal berri dakartzan eskuetan.

artean ere ukatu egin da. Berdin egiten zuten ingelesek, denbora luzez *empire* edo *imperialism* kontzeptuak usatzen baitzituzten Napoleonen Frantziar aritzeko. Oso berandu hasi ziren britainiarrak modu libre samarrean aipatzen *British Empire*.

Datozen gerra berriak

Julian Gok aurreko ikerlanetan aztertuta dauzka Puerto Rico eta Filipinetan AEBek egindakoak. Hain zuzen, bi kasuok aipatzen dituzte *intelligentsia* iparramerikarrek askok defenditzeko yankiek ez dutela inperialismoa egiten, demokrazia eta merkatu librearen beren balioak esportatzen dituztela, demokrazia ezarri omen zuten bi herrialde horiek lekuko.

Baina alde batera utzirik norbaiti sistema demokratiko bat indarrez ezartzearen ironia, erantzun du Gok: “Puerto Ricon eta Filipinetan AEBek aurrean zeukaten lekuko elite bat lehendik hezia demokrazien ideietan, eta AEBk kolaboratzaileak behar zituzten. Haiek menderatzeko, Amerika kolonialetako funtzionarioek ‘zaindaritza demokratikoa’ (*democratic tutelage*) ezarri zieten.

Ez zuten, ordea, berdin egin Samoan edo Guamen, hauetako eliteak gehiago ikusten zituztelako ‘salbai zintzo’ moduan”. Bide batez



rrren hamarkadan, bai behintzat Afganistan eta Irakeko gerrak ahaztu bezain laster”.

Iparramerikarrak gerra berrietan sartu, Barak Obamarekin oraintxe ateratzen ari direnean nola edo hala Irakekotik?

Baiki, dio Gok. Inperio guztietako jendeen moduan, AEBetakoek ere memoria laburra dute, eta ekonomiak makaltzen segitzen duenarekin bateratsu ari dira indartzen mehatxuen erretolikalak: “Inperialismoa gehienetan mehatxuan oinarritzen da justifikazio bila. Bestalde, Irak eta Afganistanen motz geratu arren, *US Army* da munduko indar militar gotorrena”.

Hori zaio beldurgarria soziologoari: ekonomiaz gero eta ahulagoa dabilen potentzia militarki munduan nagusi dela. Hori da esatea bezala indar militarra baizik ez daukala. Horra arrazoirik handiena pentsatzeko indarra erabili egingo duela bere burua gehiago makaltzen ez ikustearren.

“Pentsa ezazu auzoko mutiko liskarzale ezjakin, bortitz eta kankailuenak galdu egin dituela beren goxokiak ahulagoak diren mutikoen kontra. Zer espero duzu egingo duela? Ohartzan naiz konparazioa txoro samarra dela. Baina hein batean ez da gertatzen ari denetik oso ezberdina. Eta beldurgarria da, zeren eta ondoren ez baita etorriko AEBen etengabeko erasoak bakarrik, baizik eta mundu mailako gatazka-eskalada, agente arerioen artean. Eta orduan bai heldu zaigula mundu mailako gerra”. ■



esanda, britainiarrek antzeko *democratic tutelage* ezarri zioten India handiari XIX.ean.

Hala ere, potentzia handien arau eta eskemak ez dituzte beraiek bakarrik erabakitzen, mendean hartutako herrien erreakzioek baldintzatzen dituzte hein batean. Horrela, dio Julian Go, nekez erabil lezakete AEBek eredu kolonial tipikoa, herrialde baten anexio eta kontrol erabatekoa. Borroka antikolonialek erakutsi diete zerbait.

Alternatibak britainiarrek berek sortu zituzten XIX.ean zenbait lekutan. Alde batetik, kontrol informal bat, lekuko bezero edo morroi (*client* latinezko *clients* hitzetik dator: nagusi batek babestu eta sustatzen duen menpekoa) edo aliatuak bila-

tuz. Bestetik, bide askoz erasokorragoa, eraso militarra edo/eta aldi baterako okupazio militarra. Bigarren hau erabiliko dute klientelismoak porrot egin duenean.

Saddam Hussein AEBen *client* bat zen, eskema inperialistan. Baina egoskortzen hasi zen eta nork agintzen duen erakutsi behar izan zioten. “Gehienetan horrela gertatzen da, lehenbizi mehatxu ekonomikoa, laguntzak eten eta enbargoak ezarri. Gero, honek ere huts egin badu, inbasio militarra, argi eta garbi.

Horixe ikusi dugu azken hamarkadotan AEBak larritu ahala beren hegemonia ahultzen ari zelako, gero eta inbasio militar eta okupazio gehiago. Eta nik esango nuke horrelako gehiago ikusiko ditugula dato-



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Sakrifizioak eta gain-sariak

“**AGINTARIAK** gaizki ordainduak daude, haietako askok enpresa pribatuan askoz gehiago irabaziko lukete eta horregatik ongi dago haien soldatak igotzea”. Azken bi hamarkadetan askotan errepikatu izan den argudioa da kargu publiko- en soldata igoerak eman direnean. Oparotasun garaietako argudioa zen, krisiaren etorrerak orain estali egin duena. Orain ez da esaten, baina politikari eta agintari askok jarraitzen dute hori pentsatzen.

Ez dago zalantzarik, herrialde bat, hiriburu bat, lurralde baten kudeatzaileek ondo ordainduak izan behar dute. Baina ardura publikoa eta enpresa pribatuaren konparaketa horiek oso arrisku- tsuak dira gobernu on eta ardura- tsuaren ikuspegiarako, jardunaren indarra zerbitzu publikoaren ikus- pegian baino, lan sarian jartzen delako: “Bestela joan egingo dira, eta oso onak dira”.

Bada, joan bitez sektore pribatu- ra hala pentsatzen dutenak, espiritu publikoarentzat eta gizartearentzat arriskutsuak dira eta. Orain inoiz baino argiago ikusten ari da zein arris- kutsuak diren, funtsean haiek pentsatzen dutelako euren zer- bitzuak lan-sariez gain bestela- ko konpentsazioa ere merezi dutela. Horregatik ez dute inongo arazo moralik enpresa pribatuak alderdiei emandako diru- tza horietatik gain-sariak jasotzeko, enpresa pribatuan arituko balira askoz gehiago irabaziko luketelako eta, beraz, haien sakrifizioak merezi duelako bestelako onurarik.

Bistan da, ezin esan klase politi- ko osoa halakoa denik; areago, “denak berdinak dira” horren aurka egin behar da serio, esamol- de horrek “denok egin dezagun berdina” dakarrelako bere baitan, eta pentsamolde horiek direlako ustelkeria eta iruzurraren hedape-

naren oinarriak. Ustelkeriaren erresuman, boteretsuenek eta aberatsuenek lapurtzen dutelako gehien, gizartea eta herritarren kalterako oro har, eta bereziki ahulenen kalterako.

Baina bai, jardun publikoa sakti- fizioa delako patrikaratzen dute eskupekoa, Calisto Ayesa Nafarroa- ko PPko sailburu ohiak onartu duen bezala: PPk erabaki zuen Gobernuan egon behar zuela, berak bere negozioarekin baino gutxiago irabazi behar zuen eta, beraz, soldataz gain PPk eskainita- ko gain-saria eskuratzen zuen, Madrildik Jaime Ignacio del Burgok ekartzen ziona. Bide batez, helbu- rurako ona bada, bitartekoa ere egokia dela aitortu du Del Burgok: berdin zen nondik zetorren berak jasotako dirua, kontua da zertan erabiltzen zen eta erabilera primera- koa zen (aitortu duenez, ETAren hainbat biktimarentzat eta Basta ya!-ren gisako erakundeentzat).

Ez dute inongo arazo moralik enpresa pribatuak alderdiei emandako dirutzatik gain-sariak jasotzeko, enpresa pribatuan gehiago irabaziko luketelako

KONTUZ!-EK deituta, joan den larunbatean Iruñean 5.000 pertso- na Nafarroako Kutxan zer gertatu den argitzeko kalera ateratzea ez da txantxetako, are gehiago baldintza haietan (euria, Osasunako partidua, pilota telebistan...). Kutxa eta banku jarduera nahastu izana, kudeaketa txarra, handike- ria, zarrastalkeria (helikopteroak, Washington...), erabilera politikoa (Banca Cívica bai, beste euskal kutzak ez)... horrek guztiak ezin zezakeen ondorio onik ekarri eta

azkenean Nafarroako Kutxa azu- kre koskorra moduan desegin zen Caixabanken eta Nafarroak bere finantza tresna garrantzitsuena galdu du. Guztia kudeatu duen UPNri ez litzaioke doan atera behar, ezta jarduera hori ahalbide- tu duen PSNri ere.

Gauza asko daude azaltzeko agintariak euren interes politikoan herritarren diruaz egiten duten era- bileraz. EAJk salaketa gogorrek egin zizkion Patxi Lopezen Gober- nuari, haren jarduneko agintaldia- ren azken asteetan ere gastu han- diak egin zituelako. Orain, Gipuzkoako Hondakinen Kudea- keta (GHK) elkarteko lehendakari Juan Karlos Alduntzinek jakinarazi duenez, erakunde honek 300.000 euroko gastua du hilero La Caixa eta Banestoren interesak ordain- tzen, orain erabiltzen ez duen mai- legu batengatik. Legealdia amaitzen ari zela, aurreko diputatu Carlos Ormazabalek hauteskundeak baino


bost egun lehenago sinatu zuen erraustegiaren eraikuntza bermatzen zuen finantza operazio hau. Orduan, erraustegiaren oposizio zabalak zalantzan jarri zuen Ormazabalek hori egiteko zuen zilegitasuna, eta errauste- giaren eraikuntza behartzeko trikimailu gisa hartu zuen. Orain, Alduntzinek operazioa- ren zehaztasun gehiago eman ditu eta mailegu honetan *swap* finantza produktuen kontratazioa salatu du, horiengatik GHK-k 94 milioi euro ordaintzeko konpromi- soa hartu zuelako.

Zalantzarik gabe, komeniko litzateke operazio guztia ondo argi- tzea, herritarrek beren diruaren era- bilera zertan eta nola egiten den argi izatea komeni baita, eta kasu honek, bes- teak beste *swap* horiek tarteko, badituelako bere koskak. ■



ASTE HONETAKO

zozketak



EUREKA!

2012 DA14 asteroidea

Jakin beharreko guztia
Donostia Planetariumean

2 sarrera planetariumeko
saioan sartzeko

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

1

Ekainberri

Ekain berri



3 harpidunentzat
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

2



Erritmoa, kazetariaren batuta

Jexux Eizagirre Portillo

5 liburu opari

Hernani GIPUZKOA

www.kronika.net
www.dobera.com

3



Artez euskara zerbitzua

2013

5 urteagenda opari

Luzarra 10 - 2 Sol.
Bilbo BIZKAIA

www.artez.net

4



Munduko ipuinak

2 lagunentzat opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2354. Argia)

GAMETXO HOTELA

- Mikel Gaztelumendi Lopetegui (Donostia)

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

- Matxintxu Aek Euskaltegia (Bilbo)
- Erramon Egurrola Zabala (Aulesti)
- Josebe Sagarzazu Antsizar (Hondarribia)

ATLANTIKA

- Roberto Kerexeta Zulaika (Elgoibar)
- Pedro Azkarragaurizar Igartza (Elorrio)

TRAKAS Erbestea CDa

- Jon Muniain Agote (Erandio)
- Jaione Iurrumendi Mendizabal (Ikaztegieta)
- Josu Iztueta Azkue (Tolosa)
- Jose Luis Ormaetxea Lasaga (Gasteiz)
- Raco de la Corbella (Valentzia)

ARTEZ EUSKARA ZERBITZUA Poltsiko agenda

- aek Elkarte (Arrasate)
- Edurne Arrizabalaga Basterretxea (Ondarroa)
- Maria Jesus Zubikarai Erkiaga (Markina-Xemein)
- Erreterriako Udal Euskaltegia (Erreterria)
- Jose Jabier Iraeta Arsuaga (Zaldibia)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

Gunea

argia



EUSKAL KULTURAREN URTEKARIA 2012

- **Alberto Barandiaranen urteko kronika**

"Soziolinguistika, berriro"

- **2012an nabarmendu ziren proiektuak**

Hezkuntzako mobilizazioak, Xora filma, crowdfunding-a, Xiberoko Ikastolen Ikasle Ohiek Maskarada bere gain hartzea...

- **ARGIAko adierazpen birabilen bilduma**

- **Joerak, aurrera begira**

- Patxi Baztarrika hizkuntza politikaz
- Joxe Rojas teknologia berriez
- Ander Gortazar kulturarik gabeko kulturaz
- Iñaki Martinez de Luna euskararen erabileraz
 - Aitor Etxabe hezkuntza krisiaz
 - Mikel Irizar tokiko hedabideen talaiatik

- **Arloz arloko kronikak eta datuak**

- **Euskal Kulturaren Aurkibidea**



argia

Eskura ezazu
(00 34) 943 37 15 45
denda@argia.com